Pierre Broussain Azpaŕnen jaio zan 1869'ko agoŕiĺaren 3'an. Bere ikaskintzak lenik Laŕesoron egin zituan, gero Akizen (Dax) ta azkenik «Tivoli» Bordele'ko Aita Jesuiten ikastetxean. Sendakintza Parisen ikasi zuan, ta gero bere jaioteŕira itzuli zan. An laster bere eŕitaŕak auzapez edo udalburutzat autatu zuten, ta ardura ori amalau urtez guzien gogora betez geroz, azkenik, euskaltzaiñ izendatu zutenean, bere saiĺ beŕiari obeto jaŕaitzeko, utzi zuan; baña alere, eŕitaŕeri laguntza emateko, Aldun edo «kontseillari geien» gelditu nai izan zuan. Azpandaŕ guziak betiko aren itzaldi edeŕez oroituko dira, batezere ango iĺeŕian, igaroko aziĺaren 11'n «Gudako iĺez» egin zuanaz. Oraindik il baño len egun gutxi zala, Ezpeletan bildurikako nekazarien auŕean itzaldi edeŕ bat eman zuan «aŕbola landatze beaŕaz». Itzaldi oriek besteren batek eskutiztu edo berak argitaratu eztitualako tamal negaŕgaŕia da. Agian, utzi dituan euskal txaŕtelen aŕtean bere euskera edeŕa ezagutarazi dezaketen apuŕka batzuk auŕkituko ditugu, ta bitaŕtean gure biotzean goŕdeko degu aren maitetasun eta euskalduntasunaren oroimena.

EUSKALTZAINDIA'REN BATZARAK

I Euskaltzaindia nola ta noiz jaio ta geitu zan

II Euskaltzaindia'ren lenengo urteko batzarak

I

EUSKALTZAINDIA

NOLA TA NOIZ JAIO TA GEITU ZAN

I Oñati'ko Batzara'raiño

Akademia edo Euskaltzaindi batean euskaltzaleak bein bildu'ta betiko gogoŕtzea, orixe da aspaldiz geroz euśkeraren adiskideak biotzean zekaŕten ametsa.

Lenik idazleak beren idazkietan ta iztunak beren mintzaldietan asmo ori gogoz arḍurapetu ta ikeŕtu zuten. Orain ogei-ta-amairu urte (1886) Durango'ko euskal-jaietan Aristides Artiñana'ren gutuna: «*Proyectos de Academia Vascongada*» saristatua izan zan, (1) ta berealaxe *Euskal-Erria* deritzan agerkarian argitaratu zuten izburu auezaz: «*Prospecto, bases y reglamento de una Academia de la Lengua é Historia euskara en completa armonía con los principios católicos*». *(2).*

Miĺa zortzireun-ta-laurogeita sei'gaŕen urte artan, K. Kannemann ta T. Linschmann aleman euskaltzaleak, Berlin'en, bere *Baskische Gesellschaft* edo Euskal Lagundia jaso zuten, ta orduan, amaŕ urtez iraun bear zuan agerkari *Euskara* argitaratu zuten. Andik amalau urteren buruan, gure aŕtean azkenekoz piztu zan Euskaleŕikọ euskaltzale guziak alkaŕganatzeko asmoa. Euskalkiak bateratzekotan, 1901'ko dagoniĺaren 11'n, Hendaya'ko batzaŕak erabaki zuan alḍerdi guzietako euskaltzaleen aŕtean Lagundi edo Alkaŕtasunbat irasi bear zala. Orixe, uŕengo urtean, Uŕuña'ko euskal jaietan, Arbelbide apaiz jaunak ozenki aitatu zuan. Baña,

(1) Barcelona, Ramírez, 1886, in 8°. Oŕela irakuŕtzen degu Soŕaraın'en gutunizentegian *(Catálogo)* ta Euskal-Ikaskuntza'ren txarteletan. Eztet ikusi, oso bakandua da-ta.

(2) *Euskal-Erria,* 1886'n urt., 15'n idazlodia *(tomo).*

andik laster, saiī oŕeri burua emateko, Euskaltzaleak Ondaŕibia'n bateratu ziranean, beren aburuak ezin elkaŕi josi izan zituzten ta bakoitzak bere aldera jo zuan. Lapuŕdi, Benabaŕe.ta Zubero'koak *Euskalzaleen Biltzarra* derioten baltzua jaŕi zuten, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Napaŕoa'koak berena *Euskal Esnalea*'ren izenarekin jasotzen zutelarik. Gerora (1907'ko dagoniīaren 12'an) *Euskalzaleen Biltzarra*'koak, Hendayan bildurik, autaŕkiz bere Lagundia *Euskal Esnalea*'rekiñ jostea erabaki zuten, baña alaère baltzu biok banakaturik jaŕaitu zuten. (1).

Miīa bederatzireun-ta-zazpi-gaŕen-urtean gaude. Aitatu ditugun euskaltzaleak bateratzeko indaŕketa guziak alpeŕetan galdu dira. Oŕelako saiī gogoŕa bururatzeko, asmo aundiko langiīeak baño, indaŕ ta dirudunak beaŕago dira. Egikizun aiñ astunaren aurean, gizonak berak makal gelditzen dira: betoz oŕtarako Aldundiak. Euskaltzaindia'ren jaiotza Bizkai'ko Aldundiaren lana izan da.

Len-lenik, 1906'ko urtean, Adolfo Urkijo'k, Aldundia'ren buru zalarik, bere lagun ta mendekoai berak asmatu zuan Euskal *Akademia*'baten atala eskaiñi zien. Gure oraingo Euskaltzaindia'ren araudi geienak Urkijo'ren lan aipagaŕi ortan auŕki litezke. (2). Zergatik asmo ori bururatu etzan eztakigu.

Baionan euskaltzale bikaiñ batzuk, 1911'ko azaro 9'an, *Cercle d'Etudes Euskariennes* edo *Euskal Ikaskuntzazko Baltzua* izeneko Lagundibat bere aŕtean koropilatu zuten. Egiazko Euskaltzaindi bat ez izan aŕen, alkaŕtasun oŕek lan poīit eta jakiña, iraun zuan epe luzean, ixilki ta eraz burutu zuan. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*-en VI gaŕen urteko 238'g. ta VIII'ko 161'g. oŕietan lan oŕen beŕiak irakuŕ ditezke.

---

(1) Ikus. Uŕuña'ko euskal jaietan, 1901'ko dagoniī'an Arbelbide apaizak egindako itzaldia *(Eskualdun ona*, urtariī 19, ta otsaiī 2, 16 ta 26 gaŕenetakoak). Saiī oŕen gorabera guzietako agiriak, Baiona'ko Apaizpikutegi'ko kutxetan goŕderik daude, Daranatz apaiz jaunaren eskupean.

(2) «.....El que suscribe somete á la ilustrada consideración de las Diputaciones vasco-navarras las siguientes bases: *Primera.* Se crea una Academia de la Lengua vascongada, compuesta de doce individuos de número y de otros académicos que tendrán carácter de honorarios, y cuyo número se fijará más adelante. Estos académicos honorarios serán nombrados por la misma Academia. – *Segunda.* Será condición precisa que entre los miembros de número haya cultivadores de todos los dialectos literarios de la lengua euskara. – *Cuarta.* Las Diputaciones de Navarra, Guipúzcoa, Álava y Vizcaya contribuirán al sostenimiento de la Academia en la proporción y forma

Sei urte igarotzen dira, saiĭ oŕez itzik aditu gabe. Miĭa-bederatzireun-ta-amairu gaŕen urteko azaroan, *Euskal-Esnalea*'k ikeŕtzen ditu bere irakuŕleen asmoak, eŕderaz oŕela irartzen duan galde batean: «*Academia de la Lengua Vasca. ¿Es conveniente la creación de una Academia de la L. V.? ¿Es posible? ¿Qué beneficios rendiría esa Academia á nuestro idioma?*» Uŕengo zenbakietan (Lotaziĭ. 15'an, 1914'eko Ilbeltz. 15-30'ean, Otsaiĭ. 28'an, Epaiĭ. 15'ean ta loŕaiĭ. 15-30'ean) irakuŕle batzuen aburuak badakuskigu. Bere aldetik *Gaceta del Norte* deritzaion izpaŕingiak, lotaziĭaren 5'ean, baietz jaŕi bear dala darantzu. (1).

Baña beti elez ele gabiltz ta ezer egin gabe. Oŕa azkenez, uŕezko izkiz Euskaltzaindiak bere etxeko atari-gainean ezari beaŕko duan eguna: 1918'ko Urtariĭa'ren 25 gaŕena. Egun aŕtan, Bizkai'ko Aldundia'ren jauregian, Elgezabal'tar Kosme aldun bikañak euskeraz idatzitako atalbat bere kide argitsueri irakuŕi ta eskaiñi zien.

Urte askoren buruan lenbiziko aldiz, orduan, euskera Bizkai'ko Aldundia'n sartu zalako ta Elgezabal'en ageri onek gure Euskaltzaindia'ren araudi labuŕa dakaŕelako ementxe, dan bezala, josi bear dala deritzagu.

Excma Diputación de Vizcaya:

«Jaunoi: Benetan uŕgazi beaŕ dogun auŕenetarikoen lan aŕtian, nekeza berez ta gure eŕiya bizi dan bereizkiñakaz egiztu ta atonduteko gatx-gatxa, ageŕtzen yaku irakaskintziena. Jakiñezak eta naikunde zitalak sortu dabezan zentzugabeko ustiak, ezaupen okeŕtuak abeŕiyatzaz, jakintz-atzeŕitaŕen saŕkunde bidebakoak, bere aŕtezkari andikiyen erizpen bedaŕak eta gure buruaz

---

que se fije de común acuerdo Servirá esta subvención para la publicación de libros y para la retribución de los académicos, á los cuales se señalaran, bien sean dietas por cada sesión, bien sea una cantidad alzada por año. — *Quinta*. El nombramiento de los doce individuos de número de que ha de constar, por ahora, la Academia habrá de encomendarse á las mismas Diputaciones hasta la constitución de aquel cuerpo. Una vez que se constituya, la misma Academia irá cubriendo libremente las vacantes que ocurran por fallecimiento de alguno de sus miembros, etc. (Ikus. *Academia vascongada*. Proposición presentada á la Excma. Diputación de Vizcaya por su Presidente don Adolfo Gabriel de Urquijo. *Revista Internacional de los Estudios Vascos* len urtean (1907) 1'ko zenbakian, 31g. oŕ.).

(1) Ikus. *Euskal-Esnalea* amabosterokoaren III ta IV gaŕen lodiak.

aspaldiyan ixan oi dogun arduraezak, ekari dabe oraingo geure eriyen egoera tamala. Asko deus eztu ta iya gustiya iragiteko dago.

» Olako inguru bageaz, notin ta aldra bikain batzuen alegiñak, onek urgazi ta zabaltzeko almen eraldu bat izan ezik, alperik dira. Eta egipidiaz baiño naikunde obiaz gura dogu, geure gerkunde au txiro aren, jakidiya irasi ta zabaldu; idazti ugari iratzi; euzkeria indartu, obetu ta berari dagokiyon abegiyaz artu dayela txoniztegi, ikastol eta irakastokiyetan; bera geure artuemoneko lenengoetarikoen lankiya izan daitela, euzkeriak euzko-notintasuna sendotu dagiyen. Naikunde zintzoa, baiña dagokazan bidiak artzen ezpadoguz, elduko etxakuna.

» Izkuntzen gixarteko bizitza, idazle ta irakurle piio oñ bat barik, ezin sendotu lei: eta ez idazle ez irakurlerik izango dogu, eurek sortu bear dauzen eriyari, benetako euzkelduna izaten irakasten ezpadotsagu. Labur geldituko dira beti, bakoizdunak edo diralako, utsune au betetako baten batzuek egiten dabezan iñungo alegin txalogariyak.

» Lan oroen lendiko bidian agiri dira gabe orek. Zelai muga bako bat da euzkeria edozelako naikeriyentzat. Norberen jakintzen autustia, au da ta au ezta euzkeriatzaz irakasteko, idazle geyenen atza da; iñok be eztau bere erizpena jarein gura, irauten dira aldiak eta eskarak Jaungoikuari ozta-ozta izan aren be, zerbait auratzen ba-gara geure lanian.

» Lenen-lenen ba, bidia atondu bear, beragandik ondo ibilteko ta bera zuzen erabilteko. Biar-añeko notiñen Bazkun bat, aldiak batak bestiakin aztertu ta aldan ondoen erabagiteko; utsunak bete; itzen ikurpena eta esanguria tinkotu-idazkera bat jari; izkelgiak bata be ezetsi barik eta alkare geitu ta aberastuta baiño, orobatu; idaztiyak bildu, eta azkenez, izkera garbi, makezbako jakintz-lanetarako egoki ta erabilkora, eusko-erien gaigaria, emon dagizkun.

» Gogo zabal batek eta ezetan bez berekoyak eragin bear dauz iragiko dan Bazkunen antolakizuna, izakera ta bizkitza. Egiyari ta abertzaletasunari begira eritzi batzuk danen gain edozelan ipiñi nai barik, emongo dauskuz eztabaida bare ondoren, euzkerien aran aztekariyak

» Asmo onek, euzko orori dagokiozalako, eztira esi bear Bizkai egaletan. ¡Garaipen gixajoa geure erkiyan xedatuko bageunke bera! Gipuzkoa, Araba, Napara ta Parantzeko 150.000 anayak entzungo dabe, orixe bai, geure deya eta ekariko dauskue euren laguntza, gagozan eunkiyan bizi edo ilteko epaya artuko daben asaben mintzari, zor yakon maitasunaz.

» Iraskunden eustazpiyak ixango dira:

» 1.n Bizkaya, Gipuzkoa, Araba eta Naparen Diputaziño eta Parantzeko euskeldunen ordezkariyen keriz ta babespian, irasten da Bazkunde bat .... ixenaz, euzkeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbi-

tu, obetu, orobatu ta zabaltzeko. Bere erabakiyak, agintzaĩen sorospen eta almena eltzen danaña, beaŕ-etsiko dira; eta agintzaĩe oyek ukutzen daben euzkel-gaiz oroetan beragana zuzenduko dira.

» 2.n Ogei lagunek osotuko dabe Bazkundia eta izango dira Euzkadi'ko eŕki ta izkelgi gustiyen oŕdezkariyak. Euzkeriaz lan ondoen egin daben euzko edo atzeŕitaŕak, euren zeŕtzeladagaitik (biztokiya, eŕitasuna, t. a.) Bazkunde beŕtan bazkide egizkoŕak saŕtu ezin ba-dire, lagun omengaŕiak bezela ixentau leikioe Bazkundiak. Onek eztira izango ogeitik gora. Baita be jaŕten dira bazkide lankidiak, Bazkundiak aldunduta zeregin mugatu batzuk egiztuteko. Onexen jaŕdunduntzia, oŕdaindua izango da, eta bere zenbakuna beaŕ dan beste.

» 3.n Iĩian bein gitxienez batzauko da Bazkundia; eta Araudiyak tinkotn daben sariya emongo yake batzaldira datozanai.

» 4.n Jaŕten dira oraindik ..... lagun, Lhande, Campion, Azkue, Agiŕe, Aŕiandiaga, Bustintza, Etxalaŕ, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, Euzkelzale-Bazkunako bat, Eguzkitza, López Mendizabal, Uŕkixo (Julio), Ageŕe (Iruñakua), eta Bayona'ko «Eskualduna»ren oŕdezkari bat. Jaun oŕek geŕtuko dabe Bazkundien Araudiya.

» 5.n Bein eratu ezkero, bereztuko dau bere jaŕtokiya.

» 6.n 10.000 lauŕlekogaz uŕtian uŕgaziko dau Bizkai-Diputaziñuak. Zeŕgaiti baŕiya egin aŕte eralgi beaŕ dana, Ogasun-Batzoŕdiak bereztuko dau nundik atara.

» 7.n Asmo au ta beratzaz ezaŕiko dan erabakiya egiztuteko jakin erazoko jakoe, euren gogozko ta txindiz laguntza eskatzen yakoela, Euzkadi'ko beste Diputaziñoeri eta Parantze aldeko euzkeldunari.

» 8.n Diputaziño bakotxak aututen daben Diputadua saŕtu ta izango da nagusi Batzoŕde geŕlian, Bazkundia beaŕ dan lez jaŕi aŕte.»

Bilbon Lotaziĩeko 12.n - 1918.=Kosma Elgezabal'taŕa.=Landaburu'taŕ Peli.» (1)

Bizkai'ko Aldundi eŕikoyak asmo edeŕ ori oneritxi zuala esan beaŕik eztago ta onaŕtu zuan ageria beste Aldundien baimenaren eske Euskal Eŕiko Aldun guzieri bidali zien.

Saiĩ ospetsu oŕeri beste Aldundia'k egin zioten ongietoŕia, uŕengo atalean ikusiko dezute.

---

(1) Ikus. *Boletín Oficial de la Provincia de Vixcaya,* martes 14 de Enero de 1919.

II Oñati'ko Batzara

Bizkai'ko Aldundi'an Elgezabal'ek bere gaia agertu aŕteraño Euskaltzaindi bat jaŕtzeko egin izan ziran indaŕketa guziak aŕgal, mee ta makal izan ziran. Ondoretsurik auxe baizik etzan izan. Oŕegatik Euskaltzaindia egun artan jaio izan zala esan litzake.

Bilboko Aldundi'tik, Donostia, Gazteiz ta Iruña'ko Aldundietara asmo au zabaldu-ta, laurak erabaki zuten Oñati'ko Batzaŕera aŕloa eraman ta an txedea amaitzea. Goazen bada Oñati'ra ta an egin ziran lanak ikus ditzagun. (1).

---

(1) Esatera goazen gertakari geienen ituŕburua *Eusko Ikaskuntza'k* izen onekin bereztua dadukan eskutitz piloa da: «*Academia de la Lengua Vasca. Documentos que relacionados con su constitución se envían á la Diputación de Guipúzcoa, como consecuencia de lo actuado en la Sección de Lengua del Congreso de Estudios Vascos de Oñate y de las conclusiones en ella votadas*». Ogei-ta-iru idazti elkaŕi josiak dauzka ta AA izkiak axalean dakaŕzka.

1. Acta de las sesiones celebradas por la Sección de Lengua.
2. Proposición presentada por don Federico de Belaustegigoitia con su correspondiente copia á máquina.
3. Copia de la proposición presentada por Aran Mendi. (Copia).
4. Carta firmada por «un Congresista de Oñate» dirigida al Presidente de la Sección de Lengua.
5. Acta de la reunión celebrada por la Ponencia en 17 de Octubre de 1918.
6. Proyecto original manuscrito de Estatutos presentado por el Reverendo Padre Olabide.
7. Copia del mismo, escrito á máquina.
8. Traducción euskérica hecha por el R. P. Olabide del original del proyecto de Estatutos presentado por él, con su correspondiente copia á máquina.

Oñati'ko Batzaŕa asi ta berealaxe Elgezabal'taŕ Kosme, Bizkai'ko aldunak, len-bai-len, Bilbo'n erabakiriko Euskaltzaindi oŕen aŕloa mai gaiñean jaŕtzea eskatu zuan. Iraiĺaren 4'an Izkuntzaren Batzorderako izendatuak ziran jaunak, egikizun ori betetzeko, alkaŕganatu ziran. Galdeak bi ataletan berezitzea laster erabaki zuten: lenik Elizti ikeŕtze ta garbitzeari gero Izkuntza yauŕi ta gordetzeari zegozkionak. *(Investigación y tutela del Euskera).*

Gregori MUJICA, ta URETA'taŕ Mikelek, Bizkai-ko Alduna'k, ortarako gai bat zuzendu-ta Gipuzkoa'ko aldundia'ri eskaiñi ziotela aitatu zuten, ta batzaŕkideak oaŕtarazi zituzten Aldundi onek Oñati'ko Izkuntza-Batzordea aŕloa bururatzeko lanaz arduratu zuala.

Biaramonean ELEIZALDE'k Bizkai'ko Aldundia'ren gai ori

---

9. Nota de observaciones suscrita por don Luis de Eleizalde.
10. Proyecto de Estatutos publicado en la Prensa del País.
11. Correspondencia postal y telefónica dirigida por varios miembros de la Ponencia al Secretario señor Biziola.
12. Proposición de enmienda al Proyecto publicado, presentado por don Severo de Altube, de Gernika.
13. Proposición de enmienda al Proyecto publicado, presentado por don Luis de Arbeloa.
14. Proposición de enmienda al Proyecto publicado, presentado por Fray Ruiz de Larrinaga, con carta de envío de don Domingo de Aguirre al señor Biziola.
15. Proposición de enmienda al Proyecto publicado, presentado por don José Domingo de Llona, de Bilbao, con carta dirigida al Diputado provincial de Vizcaya don Hilario de Bilbao.
16. Acta de la reunión celebrada por la Ponencia el día 17 de Noviembre de 1918.
17. Cartas de los señores Aguirre, Eleizalde y Urreta, dando la conformidad al acta de la reunión última.
18. Nota de enmiendas y reparos á la redacción del Acta y nota para la Prensa, suscrita por don R. María de Azkue, con su correspondiente copia á máquina.
19. Carta del R. P. Olabide, dirigida al señor Biziola.
20. Carta del señor Eleizalde al señor Biziola, manifestando su conformidad con la opinión del P. Olabide.
21. Carta del P. Olabide al señor Biziola, preguntando en qué estado está el asunto de la Academia.
22. Carta del P. Olabide al señor Biziola, insistiendo sobre el pronto despacho del asunto.
23. Copia de la nota dada á la prensa diaria del País.

Txartel piĺo onetatik atera ditugun xeetasunak izenmotz onekin ozkatuak dabiltz: *Docum. A. Eusk. Ikask. nº 1, 2, 3 t'abŕ.*

irakuŕi zuan ta gero beste beŕiren bat Baltsa aguŕgaŕi oŕeri itzalik emangabe zuzendu bear zala eŕezki erakutsi zuan. (1).

Antonio OZAMIZ batzaŕkideak esan zuan: «Zuek, mai oŕen auŕian jaŕiak zaudetenak, zuek Euskera'ren argi garbiena zeratenezkero, ongi itzegiteko legeak erabaki itzazute ta gu zuen aburuari jaŕaituko gatzaizkio.»

ELEIZALDE'k: «Ez. Lan aundi ortarako guk emen eztauzkagun indaŕ eta argiak beaŕ dira, aŕetaz bururatu bear dan aŕloa da-ta».

Garai oŕtan, mai buru zegoan Domingo AGIŔE'k (Goian bego) galdetu zuan: «Euskera'ren ikeŕ eta zaitzaiĺe izan ditakean Baltza ori (oraindik izenik emango eztiogu) jaŕi dadin nai balimbadezute, autaŕkiz erabaki bear degu. ¿Onesten dezute?»

Autaŕkiak bildu-ta, guziak batean *baietz* erantzun zuten.

Gero Baltsa edo Batzorde ark bere bi lan-motak nola bururatuko zituan ikertu zuten.

ELGEZABAL egikizun oien aunditasunaz izutuxe zegoan eta bi Batzorde bakaŕka jaŕtzea eskatu zuan: Euskera zaindu ta gordetzeko, bat: Euskera ikeŕtzeko, bestea (2).

---

(1) «Este Congreso, á mi modo de ver, se encuentra en el caso de tributar á las Diputaciones un rendido homenaje de gratitud..... porque cuando todas las fuerzas estaban dispersas, cuando no se podía aspirar á una concreción unánime de pareceres, esas Diputaciones pensaban ya en este problema y dieron las bases para llegar á una solución..... Ahora bien, las circunstancias, felizmente, han cambiado para nuestro País. Hoy nos encontramos con esta reunión, con este Congreso de Oñate, que representa á las fuerzas culturales del País y no tengo duda que acerca de este punto cuanto sea resuelto por este Congreso sobre la creación del organismo á que aspiramos, será acogido favorablemente por las Diputaciones. De modo que la base primera que acabo de leer, responde perfectamente bien al estado de cosas anterior, ó sea á cuando las fuerzas estaban dispersas. Hoy que felizmente las circunstancias exteriores han cambiado para nuestro País, como he dicho antes, y nos encontramos reunidos para hallar soluciones prácticas, es evidente que esa base debe ser modificada. De modo que, á mi humilde entender, cuanto de esta reunión salga sobre la constitución del organismo á que nos referimos, abrigo la confianza de que será satisfactoriamente acogido por las Diputaciones». *(Docum. I. Eusk. Ikask.* N.º 1, 5 de Septiembre).

(2) «Si esa Sección [la lingüística], es por sí misma tan importante y trascendental, que requiere tanta suma de energías y dispendio de fuerzas espirituales y económicas, ¿cómo hemos de englobarla con otra que á mi juicio es de más urgencia, como la conservación del Euskera? Propongo que sean dos instituciones completamente distintas, una que ahora salga de aquí, la otra que se encargue del estudio filológico del Euskera, que sea como la Sección de Estudios Vascos». *(Docum. I. Eusk. Ikask.* N.º 1, 5 de Septiembre).

—«Niri, aldiz. erantzun zion ELEIZALDE'k Batzorde ortan bi lan-mota orietarako biar diran gizonak bildu ditezkeala deritzat. Jakintza uts-utsean, egunerozko bearra begiratu gabe leporaño sartuak bizi diranak badira: oyeri dagokie euskera ikertzeko lana. Beste batzuk itzkuntza, ez bakarik hura ikertzeko baña geienik gizonen artean gorde ta zabaltzeko, gogoan darabilte: oyexek Euskeraren zaiñ ta banatzaileak izango dirade ta guziok buru bakar baten menpean dabiltzala sail osoagoa beteko dute.» (1).

Ortan, gora beera, gelditu zan goiz artako lana.

Aratsaldean, Aita OLABIDE ta URETA ta ELEIZALDE'k, Euskaltzaindi berriaren sortaraudia landa zezakean batzorde bat izendatzea eskaiñi zuten, ta ortarako Ureta, Elgezabal, Agire, Azkue, Olabide, Eleizalde ta Biziola aitatuak izan ziran. Jaun oyeri, amabost eguneko epearen barruan, bere aburua edozeiñek ager zezakealarik, ta gero berak izparingien bidez araudi gaia ezagutarazi lezaketela erabaki zan. Orelaxe amaitu zan Oñati'ko Batzarra.

Esan izan zan bezala, lenengo amabost egunetan euskaltzale batzuk beren aburuak Batzordeari bialdu ziozkaten. Eusko-Ikaskuntza'ren txarteletan orelako iru idazti arkitu ditut. *Ara-Mendi, Un Congresista de Oñate* ta F. Belaustegigoitia'renak dira. (2).

Bere alde, Aita Olabidek Batzordearen izenean sortaraudi-gai bat landu ta apaindu zuan, ta esandako epea amaitu zanean Laguneri eskaiñi zien. Orok, D. Agire ta Ureta'z besteak, Bilbon bildu ziran urilaren 17'an, ta Olabide'ren idazkia aretaz ta luzaro ikertuondoan bi txede auek artu zituzten: 1'na, Olabide'ren gaia aintzat artzea; 2'na, Euskal-Eriko agerkarien bidez ezagutaraztea, iñork

---

(1) «Todos conocen á hombres que se interesan por la ciencia pura de la lingüística, sin pensar por nada en cuestiones de orden práctico: estos hombres son los que tienen preparado el espíritu para esta labor. Los demás, los apóstoles, los que no consideran la lingüística como un fin en sí misma, los que la consideran como un medio práctico (entre ellos estoy yo), son los que se encargarán de la labor que corresponde á la Sección *B*. Como son independientes no pueden dañarse mutuamente» *(Ibid)*.

(2) Emen ezin eman ditezke, baña aitatu degun *Eusko Ikaskuntza*'ren idazti piloan aurki ditzaketzu (2, 3 ta 4'nak). Iruretatik luzeen eta onena azkena da. Egileak eskatutako erabaki guziak onartuak ez izan-arren, Batzordeak lenik, ta gero Euskaltzaindia'k bere Araudian onetsi ta bildu dituzte.

oŕetaz aburu beŕiren bat eman naiko bazuan, onembeste egunen buruan eldu-arazi zezan.

Soŕtaraudi gai ori ikusi naiean dagoenak, *Euzkadi*'ren uŕiĺa'ko 24'eko zenbakian ikusi dezake. Euskaltzaindiak bi bider argitaratu du (1). Aren irakuŕleeri, zuzendubeaŕezko gutxi gogoratu zitzaioten. Geienak, Euskaltzaiñ nor izango zan ala etzan eritzia erakusten zutelarik. Severo de Altube, Luis de Aŕbeloa, Aita Ruiz de Laŕinaga O. F. M., ta Domingo de Llona'k gai oŕetaz Baltzuari bere aburua agertu zioten. (2). Jaun orien idazkiak ikeŕtuz-gero, Bilbo'ko Aldundi jauregian bildu ziran azaro 17'an D. Agiŕe, Azkue, A. Olabide, Eleizalde, Uŕeta ta Biziola, ta batzuen gaiak onaŕtuz, besteŕenak ukatuz, bere lana betiko zuzendu ta gogoŕtu zuten. (3).

Orainarte, Oñati'n izendatu zituzten Batzordeko euskaltzaleak bere indaŕ bakaŕez ari dira. Baña orain euskerari Detxepaŕe'k ziona bururatzeko oŕdua eldu zayo:

Euskara! Euskara!
Ialgi adi kampora!

Saiĺ aundi ortarako beaŕtzen duan laguntza indartsua ¿non aurkituko ote du? Oŕa oŕ Oñati'ko Batzaŕean sortutako Alkaŕtasun ospetsu bat, eskua ematera etoŕiko zayona: *Eusko-Ikaskuntza*. Lagundi goreskaŕi onek bere gaiñ aŕtu zuan Batzordeak zuzendutako araudi gaia, ta ori bere omenaren argiaz apaintzen zuelarik Aldundieri bialdu zioten. (4).

Egun gutxiren buruan lau Aldundiak erantzun zuten, bere onginaia txit agerian zerakuskatelarik: Bizkai'koak 1919'ko oŕiĺaren 5'ean, (5), Araba'koak ta Naŕaŕa'koak urte beraren iraiĺ. 2 ta 3'an (6), ta Gipuzkoa'koak ioŕaiĺ 11'an (7). Guziak onetsi zuten Euskaltzaindia'ren txedea ta *Eusko Ikaskuntza*'ri agindu zioten Arau-

---

(1) *Euskaltzaindiaren soŕtarauak*. Estatutos de la Academia de la Lengua. Bilbao, Euzko Argitaldaria. 1920. 14 oŕi. (7+7) in-16.

(2) Eusk. Ikask. AA. piĺ. 12, 13, 14, 15.

(3) *Antxe*, 16.

(4) *Eusko-Ikaskuntza'ren Deia* ŕagerkariaren I'n urteko 2 gaŕen zenbakian Baltza oŕtako jaunak aldundieri idatzitako gutun edeŕa irakuŕ dezakezu: «*Escrito presentado por la Sociedad á las Diputaciones*» (p. 11).

(5) *Eusk. Ikask*. piĺ. AB. 2.

(6) *Antxe*, 3, 4.

(7) *Antxe*, 1.

diak aitaturiko gizonak bil zitzan ta orien bidez Euskaltzaiñ berriak izendatu-ta, izkeltzaindia azkenez jarri zezan.

Iraillaren 11'garenean *Eusko Ikaskuntza*'k deitu zituan arlo ortarako Donosti'ko Aldundi jauregira Oñati'n izendatuak izan ziran lau Euskaltzaiñ lenak: Azkue, Campion, Eleizalde ta Urkijo jaunak, ta oriekin batean, *Jaungoiko-zale, Euzko-Deia, Jesusen Biotzaren Deia, Irugarrengo Prantziskotarra, Euskal-Erria, Euskal-Erriaren Alde, Euskal-Esnalea, Revista Internacional de los Estudios Vascos* ta Bayona'ko *Eskualduna* deritzen agerkariak bialdutako autesleak. (1).

Esan zioten egun eta tokian bateratu ziran, ta an erabaki zutena emen, oso osorik, erderaz *Eusko-Ikaskuntza*'ren idazki-zaiñak jarri zuan bezela, dakargu:

A las tres de la tarde del día 21 de Septiembre de 1919, se reunieron en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa, previa citación hecha por la «Sociedad de Estudios Vascos», las personas á quienes, según el «Capítulo adicional» del proyecto elaborado por la ponencia que se designó en el Congreso de Oñate para organizar la Academia de la Lengua Vasca, correspondía la elección de los Académicos numerarios que habían de componerla. Asistían en tal concepto los señores don Resurrección María de Azkue, don Arturo Campión, don Luis de Eleizalde y don Julio de Urquijo, nombrados ya Académicos en el documento mencionado; y entre los compromisarios que, conjuntamente con aquéllos, habían de hacer la elección de los restantes, los señores don Carmelo Echegaray en representación de la «Revista Internacional de Estudios Vascos», doctor Pierre Broussain del «Eskualduna» de Bayona, don Domingo de Aguirre de «Euskal-Esnalea», R. P. Fray Dámaso de Inza de «Irugarrengo Prantziskotarra», don Cirilo de Arzubiaga de «Jaungoiko-Zale» y de «Jesusen Biotzaren Deya», cuyos dos votos estaba autorizado á emitir, don Toribio Alzaga de «Euskal-Erria» y don Gregorio Mujica de «Euskalerriaren alde». A petición de los reunidos actuaron de Presidente don Julián Elorza y de Secretario don Angel de Apraiz, que desempeñan los mismos cargos en la Sociedad de Estudios Vascos, suscribiendo por tal motivo la presente acta.

Después de un saludo del Presidente señor Elorza en idioma vasco, lo mismo que las deliberaciones y votación que siguieron después, dió lectura el Secretario al referido proyecto de Estatutos con las adiciones aceptadas por la Ponencia antedicha. Fueron también leídos los acuerdos de la Sociedad de Estudios Vascos en la reunión de su Junta Permanente de 3 de Marzo último, relativos á la misma Academia y la comunicación que en su consecuencia dirigió á las Diputaciones Vascas, recabando la aprobación de tal proyecto y las respuestas favorables que se habían logrado de las cuatro Diputaciones.

---

(1) *Eusk. Ikask* piī. AB. 5.

Hubo amplia deliberación para proceder á la votación de las personas que habían de ser designadas para ocupar las ocho vacantes de Académicos numerarios; y por unanimidad resultaron elegidos los señores don Domingo de Aguirre, Mr. Pierre Broussain, Mr. l'Abbé Adema, don Ramón Inzagaray, don José de Agerre, don Juan Bautista de Eguzquiza y R. P. Raimundo de Olabide, suscitándose luego discusión acerca de si el único punto que quedaba vacante lo había de ocupar un suletino ó un vizcaino. Y al ver la primera opinión de la mayoría de los reunidos, pues únicamente apoyó la segunda con su voto el señor Eleizalde, quien adujo en favor de la misma la razón del escaso cultivo literario que hoy alcanza el dialecto hablado en la región de Zuberoa, se trató de designar la persona de ésta que había de elegirse, acordándose por unanimidad también que lo fuera el R. P. Pierre Lhande.

Se cambiaron impresiones acerca de los lugares de residencia de la Academia y para la celebración de sus sesiones; lo cual del mismo modo que la periodicidad de éstas y otros particulares, decidieron los reunidos queden para la resolución de la Academia una vez constituída con sus doce miembros numerarios, á quienes se acordó que don Arturo Campión y los firmantes de esta acta notificasen su nombramiento, convocándoles para la próxima reunión, que se celebrará el día 5 de Octubre, á las diez de la mañana, en el mismo local de la Diputación de Guipúzcoa.

San Sebastián 5 de Octubre de 1919.

El Presidente de la Sociedad de Estudios Vascos y de la reunión,
JULIÁN ELORZA.

El Secretario de las mismas,
ANGEL DE APRAIZ.

Batzaŕ onekin amaitu ta osotu zan *Euskaltzaindia*'ren saĩa ta *Eusko-Ikaskuntza*'k izkeltzaiñ beŕieri autaŕki omenezkoa jakiñerazten ziotelariḱ deitu zituan, iraĩaren 21'erako, Donostia'ko Aldunditegira, an beren lenbiziko batzaŕa izan zezaten.

II

EUSKALTZAINDIA'REN

LENENGO URTEKO BATZAŔAK

Mila bederatzireun eta emeretzi-gaŕen urteko uŕiĺaren zazpitik, mila bederatzireun eta ogei-gaŕeneko uŕiĺaren len eguneraño, Euskaltzaindia'k bere kideak batzaŕean ogei-ta-bi bider bildu zituan.

BILBO'n, 1920'ko otsaiĺaren 16 eta 17'an; epaiĺaren 24 eta 26'an.

DONOSTIA'n, 1919'ko uŕiĺaren 7 ta 26'an (goiz ta aŕats); azaroaren 13 (g. ta a.) ta lotaziĺaren 23'an; gero, 1920'ko urtariĺ edo iĺbeltzaren 7 ta 8'an, joŕaiĺaren 25 ta 26'an, oŕiĺaren 24 ta 25'an, garagariĺaren 22 ta 23'an.

IRUÑA'n, 1920'ko uztaiĺaren 23 ta 24'an.

Ona emen, egunetik egunera, batzaŕ orietan Euskaltzaindia'k bururatu dituan lanak:

LENDABIZIKO TA BIGAŔEN BATZAŔAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian, uŕilaren 7'an)

ALKIETAN ZEUDEN: Julian Eloŕza, Gipuzkoa'ko Aldundi ta Eusko-Ikaskuntza'ren Buru dana; Angel de Apraiz, Eusko-Ikaskuntza'ren idazlari lena; Ageŕe, Agiŕe, Azkue, Broussain, Campion, Eguzkizta, Eleizalde, Inzagarai, Lhande, Olabide ta Urquijo, euskaltzaiñak.

I.—GOIZ BATZAŔALDEA

1. ELOŔZA jaunak euskaltzaiñ beŕieri ongi-etoŕizko aguŕa euskera garbiz emanez-kero, Eusko-Ikaskuntza'ren idazlariak ezagutarazi zuan iraiĺaren 21'ko batzaŕean izendatu ziran euskaltzai-

ñak, bat ez besteak, onaŕtu zutela egin zieten eskaiñia. Ezesle bakaŕ hura Adema apaiz jauna zan. (1)

Oŕen ordez BROUSSAIN eta LHANDE'k eskatu zuten Martin Landerreche, lapuŕtaŕ apaiz, ta *Euskalzaleen-Biltzaŕ*'eko idazkizaiñ jauna izendatua izan zediĺa. Ta guziak, autaŕkiz, onetsi zuten. (2)

2. Era berean Euskaltzaindia'k itzaŕtu zuan Aita Leiza, S. J., Kastiĺa'ko Lenburu Aguŕgaŕia'ri idaztea, ark Aita Olabide'ri, al baldin bazan, euskerazko lanetarako beaŕ duan astia eman zezayon. Autaŕki ortan OLABIDE ta LHANDE, bere Lenburuari diozkaten itzala gatik, etziran saŕtu.

3. ELORZA'k orduan Euskaltzaindia'k bere Zuzentzaiĺe edo Burua autatzea eskatu zuan. Baña ¿nolakoa izango ote zan? ¿Betikoa edo epe batekoa? Geienak bildu ziran ELEIZALDE eta LHANDE'ren aburuari: epe batekoa izan bear zala, bi urtetakoa, baña bera bietan ta geiagotan autatu litezkena.

---

(1) Ona aren ezezkoa:

Baiona, buruilaren 28'an, 1919'an.

Ene jaun onak,

Eskerrik minenak dauzkitzuet zuek nitaz egin duzuen hautuaz; bainan behar dautzuet berehala aitortu ez naizela gei hoinbertze goretsia izaiteko. Ezen, zuen lanetan deus onik egitekotz, lagun bakochak behar lituzke jakin gure Euskal-herriko mintzaira mota guziak. Eta nik erranen dautzuet lañoki ez dakizkatala batere ez Bizkaiako ez Gipuzkoako eskuara bereziak.

Bertzalde, oraiko nere egitekoekin, ez nuke astirik aski zuen bilkuretan behar liteken bezen maiz aurkitzeko. Baditut bi astekari ene gain: bat, ezagutzen duzuen «Eskualduna»; bertzea, jaun apezpikuaren astekaria, «Bulletin Religieux du Diocèse de Bayonne». Hoik guzien gainerat, niri emana zait Baionako eliza nausian behar direnen erostea, horko ontasunen zaintzea eta artatzea.

Errechki ikusten duzue, holako lanekin bertze deus guti egin dezaketala. Beraz zuhurtzia liteke hauta dezazuen, ene orde, bertze norbeit, nik baino asti eta jakitate gehiagorekin lagunduren zaituztena.

Othoizten zaituztet, ene jaun onak, onets detzatzuen, ene eskerrekin, agurrik hoberenak.

J. Blaise Adéma
Baionako Kalonjea.

(2) Ikus. Eusko-Ikaskuntza'ren txartel-kutxan gordea dan batzaŕ oŕen erabakia, erderaz ta idazkiñaz idaztia. *(Archiv. de Eusk. Ikask., docum Academia Vasca A B.)*

Gai oŕetaz Euskaltzaindia'ren Araudiak diona irakuŕi zan ta autaŕkiak bildu ziran.

Lendabiziko autaldian iñork, bear diran baiak etzituan beretu. Bigaŕenean AZKUE, zazpi autaŕkiz, autatua izan zan.

Ona emen autaŕkuntza oŕen gora-beerak:

	LEN INGURUAN	BIGAŔEN INGURUAN
AZKUE'ri	5 autaŕki	7 autaŕki
CAMPION'eri	3 »	3 »
OLABIDE'ri	2 »	1 »
URQUIJO'ri	1 »	

ELOŔZAK Azkue Euskaltzaindia'ren Buru izendatu zuan. Orduan au bere lendakarizko alkian jaŕi zan eta euskaltzaiñ guzieri eskeŕak eman zien, esanaz:

«Eskeŕak, lagun maiteak, aulki onetan eserarazi nauzutelako. *Ziri* ta *suri* dedala uste det zuen autatze au: ziri, auŕerantzean orainarte baino ere gogoŕago lan egin dezadan; sari, lan egin ditudanen ezaugaŕitzat. Gure egipidea (programa) beste bi itz auetan sar edoditeke: *emeki* ta *gizonez*. Emeki, biguñ, astiro; baina ez emakume bezela, gizonai dagokitenez baizik. Gure lanetan beaztopoa, eragozpen ta buruauste, zirikada ta nayezak maiz izango ditugu enura gabe. Iraunkor ta gogotsu bagera, azken on batera elduko dira gure lanak.»

5. Berealaxe beste arduretarako gizonak autatu zituzten:

Diruzaigorako: AGEŔE, 4 aut. (3 Eleizalde'ri, 3 Intzagaray'eri, 1 Urquijo'ri)

Liburuzaiñgorako: URKIJO, 8 aut. (3 Eleizalde'ri)

Zadoŕlarigorako: ELEIZALDE, 9 aut. (2 Lhande'ri)

6. Euskaltzaindia'ren Eusko-Ikaskuntza'rekiko begiruneak adiskidantza osozkoak izan bear zirala erabaki zan, Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntza'ren alaba (naiz askatua) dalako.

7. Gai ori ta beste aŕlo batzuk beaŕ bezela argitu beaŕez Euskaltzaindia'k eskatu zien Azkue, Eleizalde ta Olabide'ri, batzorde batean jaŕi-ta, *Araudi estari* bat (Reglamento interior) gogoratu ta idatzi zezaten.

8. Euskaltzaindia'k ¿non izango zuan bere egoitza edo bizitokia? ¿Bilbo'n ala Donostia'n? ELEIZALDE'k, gogo ta biotz beroz Bilbo autatua izan zedila eskatu zuan, darakuskun Euskalduntasun ta erikoitasunari erantzuteagatik. Ta ala egin zan, baña edozeiñ eritan batzarak biltzeko askatasun osoz. (1).

9. Azkenik, Euskaltzaindia'k nondik bere bizipidea bilduko ote zuan, kideen artean ikertu zan. *Eusko-Ikaskuntza*'k ematen diozkan elpideez gañera, Euskalerriko Aldundi ta beste Baltzu ziñezkoeri laguntza eskatu bear zitzayela erabaki zan. (2).

Oarak. Itzartu zan bezela, Euskaltzaindia'k:

1nik. Landerreche euskaltzaiñtzat autatu zuan.

2nik. Aita Leiza I'sen L'ko buruordekoari, esan dan eran, idatzi zion.

3nik. Azkue buru, Agerre diruzaiñ, Urkijo liburuzaiñ, ta Eleizalde idazlari jarri zituan.

4nik. Lau Aldundi'eri bizipidezko laguntzak eskatu zitzaizkiten.

II.—ARATSALDEKO BATZARALDEA

1. Euskaltzaiñ deduzko (Académicos de honor) ta euskaltzaiñ urgazle (correspondientes) batzuk izendatu bear zirala Euskaltzaindia'k erabaki zuan. Txede ortarako, omen geienezko euskaltzaleen izen lerokada bat bein-beinean bildu zan ta idazlariari, izen pilo ori idazkailuz jo ta kideen artean yaur zezan agindu zioten,

---

(1) Ikus. aitatu degun erdel idazkiñitza: «El domicilio de la Academia, á propuesta del señor Eleizalde y consultados los académicos de otras regiones, se resolvió establecerlo en Bilbao, como tributo debido al fuerte impulso que surge de aquella villa para todas las manifestaciones de la vida vasca. Allí radicarán las oficinas y demás dependencias estables de la Academia, sin perjuicio de que las reuniones puedan celebrarse en San Sebastián y otros puntos que se juzguen convenientes.»

(2) «La Academia recabará del país, y especialmente de sus Corporaciones públicas, la concesión de donativos y subvenciones que le permitan disponer de fondos propios, aparte del auxilio que le preste la Sociedad de Estudios Vascos» *(Comunic. á la Prensa, octubre 1920)*

zetoŕen batzaŕan autatu beaŕ ziranen izenak nork berak ondo gogoratu ta begizta zitzan. (1).

2. Euskeraren idazkera Euskaltzaindia'k autetsi arteraño, edozeñez idatzi ditekela erabaki zan. (2).

3. Euskaltzaindia'ren araudia zuzentzeko autatu ziran euskaltzaiñak Bilbo'n uŕiĺaren 19'an, ta euskaltzaiñ guziak beren irugaŕen batzaŕerako Donostia'n uŕiĺaren 26'an biltzea agindu izan zan.

4. Bere lan guzien buruan Jainkoaren izena ipiñi naiez Euskaltzaindia'k au erabaki zuan: Kide guziok, Santa Maria'ko eleizan bildurik, zetoŕen batzaŕaren goizean, Gogo Santua'ren meza lenik entzun zezatela.

5. Azkenik BROUSSAIN'ek bere kide guzieri eskatu zien iñoiz Euskaltzaindia'ri auŕkazko Lagundi'ren-bat an edo emen jasoko balitz, oŕeri oraindanik bere izen eta laguntza betiko uka zezatela. Ta guziak, gogo biotzak bateraturik, Euskaltzaindia'ri ziñ oŕi eman zioten. (3).

Oaŕak. Esan-ta, auexek egin ziran:

1k. Idazlariak kide bakoitzari euskaltzale geienen izen piĺoak bidali zizkion.

---

(1) «En la próxima sesión plenaria se designarán los académicos correspondientes, para lo cual se formó en la reunión última una lista de los más distinguidos cultivadores del idioma vasco, de todas las regiones y escuelas literarias, como también de las personas de gran relieve científico, de fuera del país, cuya labor en la materia les hace merecedores del título de Académicos Honorarios.» *(Antxe.)*

(2) «En lo que respecta al lenguage y ortografía euskérica que se han de emplear, se acordó que hasta que la Academia adopte otras resoluciones sean los que cada autor ha venido acostumbrando.» (Archiv. *Eusk. Ikas.* docum. *Acad. Vasc.)*

(3) «Terminó la reunión con entusiastas acuerdos adoptados unánimemente á propuesta del señor Broussain, alcalde de Hasparren, de firme adhesión á la Academia que con el apoyo que ya le han otorgado las cuatro Diputaciones Vascas y la suma de voluntades que en ella convergen y que se desea cada día mayor, puede realizar una obra en pro del euskera, que emprendida con tal oportunidad, mesurados propósitos y sereno entusiasmo, hace esperar que sus resultados han de ser aplaudidos por todos.» *(Comunic. Prens. octubre. 1920)*

2k. Araudiaren zuzentzaileak (Azkue, Eleizalde ta Olabide) Bilbo'n, urrilaren 19'an, bildu-ta, eskaturikako egikizunak bete zituzten.

3k. Bi batzar orietako beri ta erabakiak, idazkizaiñaren eskuz, izparringi edo egunkarietan jariak izan ziran.

IRU TA LAU-GARREN BATZARALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, urrilaren 26'an).

ALKIETAN ZEUDEN: Azkue, buru; Agirre, Broussain, Campion, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagaray, Landerreche, Lhande, Olabide, Urquijo.

1. AZKUE'k Landerreche'ri ongi-etorrizko agurrak eman ondorean, onek, Lapurdi'ko euskera garbiz, Euskaltzaindia'ri eskerrak biurtu zizkion.

2. AZKUE'k ezagutarazi zuan Bizkai'ko Aldundi-Buru jaunak eta Bilbo'ko Auzapaiz edo Udalburu jaunak oneritxi zutela Euskaltzaindia'ren egoitza Bilbon izateko asmoa, ta ortarako laguntza osoa eskaiñi ziotela.

3. Aita Leza, Jesusen Lagundi'ko Buruordekoa'k, Euskaltzaindia'k Aita Olabide'rentzat asti geiago eskatu zion eskutitzari emandako asmo onezko erantzupena irakurri zan. Ta Euskaltzaindia'k bere idazlariari agindu zion bere izenean eskerrak Aita Leza'ri biurtu zeizkiola.

4. *Eusko-Ikaskuntza*'k eskeñi ziozkan euskal Abizen ta Tokizeneko agerkaiak *(Dòcumentos de Patronimia y Toponimia vascas)* Euskaltzaindia'k eskuratu zituan.

5. Euskaltzaiñ deduzkotzat *(Académicos de honor):* Patricio de Orcaiztegui Tolosa'koa, Hugo Schuchardt Gratz'koa, Julien Vinson Paris'koa ta C. C. Uhlenbeek Leide'koa autatuak izan ziran.

6. Euskaltzaiñ urgazletzat (Académicos correspondientes) emen dakarzkigun euskaltzaleak izendatu ziran:

Bizkaia'n: Severo de Altube, Gernikakoa.
» Federico Belausteguigoitia, Durangokoa.
» Evaristo Bustintza, Bilbokoa,
» José María Errazti, Bilbokoa.
» Luis González Echabarri, Bilbokoa.
» Juan Cruz Ibarguchi, Eibarkoa.
» Gabriel de Manterola, Eibarkoa.
» Nazario Oleaga, Bilbokoa.
» Amancio Urriolabeitia, Zornotzakoa.
» Pablo Zamarripa, Gatikakoa.

Gipuzkoa'n: Toribio Altzaga, Donostiakoa.
» R. P. Pedro de Lardizabal, S. J., Segurakoa.
» Juan Bautista Larreta, Sorabilakoa.
» Manuel Lekuona, Oyarzungoa.
» Isaac López Mendizabal, Tolosakoa.
» Gregorio Mujica, Ondarabikoa.
» Pedro María Urruzuno, Mendarokoa.
» José Zinkunegi, Erenterikoa.

Nafroa'n: Teodoro Arburua, Etxalarkoa.
» R. P. Celestino de Caparroso, Tudelakoa.
» R. P. Eusebio de Etxalar, Lekarozkoa.
» Fermín Irigarai, Iruñakoa.
» R. P. Nicolás Ormaechea, Jabierkoa.

Araba'n: Odón Apraiz, Gazteizkoa.

Lapurdi'n: Blaise Adema, Baionakoa.
» Jn. Bte. Daranatz, Baionakoa.
» Pierre Dourisboure, Semperekoa.
» Jean Saint-Pierre, Baionakoa.

Benabarre'n: Jean Etchepare, Aldudekoa.
» Julien Heguy, Bezkoitzekoa.
» Georges Lacombe, Baionakoa.
» Fréderic de St. Jayme, Donapaleokoa.

Zubero'n:	J. Bte. Constantin, Ataŕatzekoa.
»	Félix Larrieu, Maulekoa.
»	Justin de Menditte, Mendikotakoa.
»	J. Urruztoy, Baŕkoxekoa.
An-emen:	J. B. Darricarrère, Baionakoa.
»	H. Gavel, Baionakoa.
»	R. Menéndez Pidal, Madridkoa.
»	J. Saroïhandy, Pariskoa.

7. Bilbo'n uŕiĺaren 19'an Araudia'ren Batzordeak zuzendutako *Euskaltzaindia'ren Araudi estarizko gaia* gero irakuŕi zan, ta mai-gañean utzi zuten, kideak eskuratu ta begira zezaketen.

8. Euskaleŕiko Udal *(Ayuntamientos)* guzieri Euskaltzaindia' ren jaŕkunde ta laguntzazko eskeak jakiñeraztea azkenik erabaki zaṇ.

Oaŕak:

1. Batzaŕ orien auŕetik, kide guziak Santa Maria'ko eleizan alkaŕganatu ziran Gogo Santua'ren meza entzuteko, Zuaznabaŕ Donostia'ko udalburu eta Gipuzkoa'ko Aldundiak ortarako bidali zuan Batzorde'ko jaun batzuk berekiñ zeuzkatela.

2. Bilbo'ko Udalak ta Bizkaiko Aldundiak Euskaltzaindia'ri bizitokitzat eskaiñi ziozkaten etxeak Azkue ta Eleizalde'k ikusi ta ikeŕtu dituzte. Iri artan eraikitera dijoazen *Bilkindegi* beŕiko etxean Euskaltzaindia'rentzat berezitako gela gaiak begietsi ta oneritxi zituzten.

3. Euskaltzaindi ta Eusko-Ikaskuntzaren idazlariak Urgazleeri erderaz, (euskerazko idazkera oraindik erabaki etzalako), beren izendatzearen beŕiak gaztigatu zizkioten.

Gaztelerazkoak onela zion:

San Sebastián, 27 de Octubre de 1919.

Muy señor mío: La Academia de la Lengua Vasca, en su sesión celebrada el día de hoy, ha nombrado á usted, por unanimidad, académico correspondiente, con derecho á asistir, con voz pero sin voto, á las asambleas ordinarias de esta Corporación.

Confiamos en que por el amor que profesa usted al idioma, se servirá usted aceptar el cargo que se le confiere é ilustrar á la Corporación con sus reconocidas luces. Esperamos que en el plazo de quince dias, á partir de la fecha de la presente, tenga usted la bondad de comunicar á cualquiera de los dos firmantes, su aceptación.

En tanto, quedamos de usted atentos y seguros servidores que le estrechan la mano,

El Director de la Academia,
Resurrección María de Azkue.

El Secretario de la Academia,
Luis de Eleizalde.

Idazki au erderaz bidaltzen zaitzu, Batzar aunek ez dualako oraindaño yarraituko duan idazkerarik erabaki. Barkatu, aren.

Las respuestas al Director (Campo Volantín, 15, 3.°, Bilbao) ó al Secretario (Chalet Gainzuri, Iralabarri, Bilbao).

Prantzerazkoan argitasun batzuk ipiñi ziran, Lapurdi, Benabarre ta Zubero'ko Euskaldunak emengo berri gutxi dakizkitelako. Derasa:

Saint-Sébastien, Palais de la Députation de Guipuzcoa
26 Octobre 1919.

Monsieur et cher compatriote:

L'Académie de la Langue basque, dans la session qu'elle a tenue aujourd'hui au Palais de la Députation de Guipuzcoa, a décidé à l'unanimité de vous nommer *membre correspondant*. Ce titre vous octroie la faculté d'assister aux assemblées ordinaires de l'Académie avec voix consultative, à l'exclusion cependant, du droit de vote et de l'indemnité de déplacement.

L'Académie est constituée suivant le vœu adopté à l'unanimité par le Congrès d'Oñate en Septembre 1918 en présence des délégués de tout le pays basque. Le Labourd, la Basse-Navarre et la Soule y étaient représentés par ses députés au Parlement et ses délégués, groupés autour de S. G. Mgr. Gieure.

L'Académie est établie sous le patronage officiel et avec l'appui financier des 4 Députations d'Alava, Biscaye, Guipuzcoa et Navarre et de nombreuses municipalités de ces 4 Provinces. L'Académie comprend 1°) 12 membres titulaires, tous Basques, répartis en 2 sections: la section philologique et la section de propagande.—2°) 4 membres honoraires et 4 membres correspondants étrangers.—3°) 30 membres correspondants basques dont 12 pour la Basse-Navarre, le Labourd et la Soule, chargés de seconder l'Académie dans ses recherches et ses travaux.

L'Académie se propose: 1°) de fixer l'orthographe euskarienne.—2°) d'expurger et de compléter le vocabulaire de la langue dans tous les dialectes en substituant aux termes étrangers les vieux mots basques tombés en désuétude et en élaborant les néologismes destinés à exprimer les concepts

modernes.—3º) de travailler á constituer un *eskuara* littéraire qui servirait de trait d'union aux Basques de toutes les Provinces, sans se substituer, bien entendu, aux dialectes locaux.

Ce serait méconnaître l'esprit de l'Académie que de la considérer comme une sorte de Tribunal sans appel qui voudrait imposer à tous ses arrêts. Elle n'a d'autre but que de coordonner les efforts de tous pour le maintien et l'essor de notre vieille langue.

Nous espérons que votre attachement à notre langue vous inclinera à mettre vos lumières au service de notre Société.

Vous voudrez bien nous communiquer votre décision dans un délai de 15 jours à partir de la présente lettre.

Nous vous prions d'accepter, Monsieur et cher compatriote, l'assurance de nos sentiments les meilleurs.

Le Directeur de l'Académie,
Resurrección María de Azkue.

Le Secrétaire de l'Académie,
Luis de Eleizalde.

Envoyer les adhésions à Don Resurrección María de Azkue, 15, Campo de Volantín, Bilbao, ou Don Luis de Eleizalde, Chalet Gainzuri, Iralabarri, Bilbao.

Idazki edo letra hau igortzen dautzugu frantzesez, Biltzarra hunek ez dualakotz oraino erabiltzen egin gogo duen izkiria-moldea. Barkatu othoi.

BOST ETA SEIGAŔEN BATZAŔALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundia'ren jauregian, Azaroaren 13'an)

ALKIETAN: Azkue, buruzagi; Agiŕe, Broussain, Campion, Eguzkitza, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide ta Urquijo.

I.—GOIZ BATZAŔA (V'na)

1. Buruzagiak idazlari jauna (Eleizalde) Madriden dala darakus, beaŕ-beaŕezko aŕazoetara joana, ta Araudiko II gaŕen arauak emaniko eskubidez, Intzagarai euskaltzaiña idazlari-ordekotzat aukęratzen du.

2. Idazlari-ordekoak euskaltzain-uŕgazletzat izendatukoen erantzun baieztunak, geienak euskerazkoak, irakuŕi zituan:

Bizkai'tik: Nazario de Oleaga (Zeanuri, uŕiĺaren 31), Severo de Altube (Geŕnika, aziĺaren 2), J. C. Ibarguchi ta Gabriel de Manterola (Eibaŕ, az. 3). F. Belaustegigoitia (Bilbao, az. 4),

L. de Echavarri (Bilbao, az. 8), Pablo de Zamarripa (Oquendo, az. 10), ta A. de Urriolabeitia'renak.

Gipuzkoa'tik: José Cincunegui (Rentería, azilaren 1), Gregorio Mujica (San Sebastián, az. 3), Manuel de Lecuona (Gazteiz, az. 3), P. M. de Urruzuno (Mendaro, az. 7), Toribio Alzaga (San Sebastián, az. 8), P. de Lardizabal (Bilbao, az. 10) ta I. López Mendizabal'enak. (Tolosa, az. 10).

Naparoa'tik: P. Eusebio de Echalar (Lekaroz, urril 31) ta P. Celestino de Caparroso'renak. (Tudela, az. 5).

Araba'tik: Odón de Apraiz'ena. (Gazteiz, azil. 4).

Lapurdi'tik: J. Saint-Pierre (Baiona, az. 4) ta J. B. Daranatz' enak (Baiona, az. 6).

Benabarre'tik: J. Heguy (Bezkoitze, az.), ta F. de St. Jayme' renak (Donapaleo, az.).

Zuberoa'tik: J. Urruztoy (Barkoxe, az. 4), J. de Menditte ta J. B. Constantin'enak (Atarratze, az. 7.).

Erantzun etzuteneri, urengo batzar-egunerarte epea luzatzea itzartu zan.

3. Euskaltzaiñ urgazle an-emengoen artean jartzeko autetsirik izan ziran: P. Manuel de Ariandiaga, M. I. C. M., Carmelo de Echegaray, Spencer Dodgson, H. Winkler, H. Urtel, T. Linschmann ta Albert Léon.

II ARATSALDEKO BATZARRA (VI'na)

1. Euskaltzaindia bere barneko arau, Olabide'k idatzi ta Azkuek euskeraratutakoak, ikerr ta aztertzen arduraz asi zan. Ortarako euskaltzaiñ guzien eskuetan arau auek elaztiz moldatu-ta emanak izan ziran. (1).

(1) Auxe zan gutuntxo orren len ateraldia: *Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca. Euskalzaingoaren araudi estaria.* Editorial Vasca. Euzko-Argitaldaria. Bilbao 1919. Amabost ori, in-16 einekoak, dauzka.

2. Aztefpen ofen ondoan era befi batean apainduak gelditu ziran 2, 3, 9, 16, 17, 19, 28, 29 ta 30 gafen arauak ta Olabide'ri kidpak agindu zioten zetofen aldirako autafkigintzari ta Eusko Ikaskuntza'rekiko yardunbideari zoazkonak Euskaltzaindia'ren gogoaren araura befitu-ta idatzi zitzan. (1).

3. Batzafkide batek Euskaltzaindia'ri jakiñerazten dio, *Donostia'ko Udal-Bilkindegi'ko* (Museo Municipal de San Sebastián) Batzordeko jaunak, udalburuaren onespenez, afitu duten erabakia. Erabaki onek Bizkaia, Gipuzkoa, Araba ta Napafoa'ko Aldundiak goresten ditu laguntza berezia Euskaltzaindia'ren iraspenerako aldeztu dutelako, ta zorionezko agufak bai Eusko-Ikaskuntza bai Euskaltzaindi berari damazkie. Onek, txaloka, onesten ditu zorionaguforiek eta Eusko-Bilkindegi'ko jauneri eskefak biufitzen diezte.

4. Azkenik, Batzafburu jaunak, ufengo batzafaldietako egun, toki ta egikizunak dakafzkien txartel bat euskaltzaiñ bakoitzari aufetik bidaltzea bere lepoko afitzen duala, dasa.

Oafak:

1. Euskaltzaindia'ren deiari erantzun etzioten euskaltzaiñ omenezko ta ufgazle-gaientzat luzatu zan erantzuteko epea.

2. Intzagarai, idazle-ordekpak, Araudia'ri eginikako aldakuntzak, ufengo ateraldian jafitzeko asmoan, bildu ta gorde zituan.

3. Olabide'k bere gaiñ afitu zuan autafkigintzaren araudi befia jostea.

4. Eusko-Bilkindegi'ko jauneri Euskaltzaindia'k eskefak eman zizkien.

5. Egun ofitatik aufera, gure Buruak Batzafaldietako egun, toki ta erizkizunak dakafzkiten txafitelak bidali dizkigu.

---

(1) Orduan ipiñitako eraskin eta aldakiñak, Araudiaren bigafen ateraldian dakuskiketzu. Ona ofen izen eta itxura: *Euskaltzaindiaren bafneko araudia. Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca* Bilbao. Euzko Argitaldaria. Editorial Vasca, 1920 Ogeita lau (12+12) ofi in-16 eineko. Lan ardurazkoa izanafen, utsune batzuk safitu zaizkio; bat 28 g. arauan; Euskaltzaindiak «afgitaratu naiz ilunpekoak»-en ordez, «afgitaratu naiz afgitaratzekoak» jafitzea agindu zan.

ZAZPI TA ZORTZIGARREN BATZARALDEAK

(Donostia'n Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian, Iotazilaren 22 ta 23'an).

ALKIETAN: Azkue, Agirre, Broussain, Campion, Eleizalde, Eguzkitza, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide ta Urquijo.

1. Azken batzaraldearen ondorean euskaltzain urgazle-gaiak emandako erantzupenak Idazlariak aipatu-ta irakuri zituan: iru ezezko ta bi baiezko. Ezezkoak, E. Bustintza (Bizkaia), Georges Lacombe (Benabarre) ta B. Adema apaizarenak (au Lapurdikoa); baiezkoak, Teodoro de Arburua (Echalar, azar. 13) Napartar ta J. Etchepare (Aldudes, azar. 20) benapartarenak.

Era berean euskaltzain urgazle batzuen onespen eta eskerak agertu zaizkigun: Carmelo de Echegaray (Gernica, azil. 16), P. Manuel de Arriandiaga (Madrid, azil 19) ta Albert Léon'enak (Baiona, azil. 26).

Gero gure Buruzagiak irakuri zigun Patricio de Orcaiztegi Tolosa'ko Apaiz-nagusiak idatzi zion ezezko erantzupena.

2. Aita Olabide'k zuzendutako autarkigintza-gai ta Euskо-Ikaskuntza'rekiko yardunbide berria Euskaltzaindia'k aztertu ta onartu zituan. *Araudia*'ren bigarren ateraldiko gutunean aurki ditzaketzu.

3. Azkenik Euskaltzaindia'ri eman bear zitzayon izenaz ta Araudia'ren azterpengai batzuez arduraz itzegin zan.

BEDERATZI TA AMARGARREN BATZARALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundia'ren jauregian, urtarilaren 8'an)

ALKIETAN: Azkue, Broussain, Campion, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide, Urquijo ta Cincunegui euskaltzain urgazlea.

I URTARILAREN 7'ko BATZARA (IX'na)

1. Euskal-Eriko Aldundi, Udal, Alkargo ta Baltzueri, euskerari dagozkion gai oroetan Euskaltzaindia'ren erabakiak onetsi ta eutsi dagiezala eskatzea itzartu zan: orobat, Erian agertzen diran albistari ta izparingi guziei.

2. «Barneko Araudia»-ri azken ikustaldi bat eman zioten. Orela, 3, 11, 17, 30, 32, 44, 45, 46, 47 ta 48 g. arauak aztertu zituzten, batzuk zuzenduz, besteak ziran bezala gordetzen zituztelarik, ta lan oretzaz betikotz gogortua gelditu zan *Euskaltzaindia'ren barneko araudia*.

3. Geroxe, eztabaidan ezari zan, *euzk* ala *eusk* danetz gure izkuntzaren izenak dakaren len itz atala. AZKUE'k, «*eusk*» antziñakoak ta euskal-alderdi geienak darabilten itz ta elekera zala; ta EGUZKITZA'k, oraiñ beñikpeiñ askok, ta balimba geienak Egoaldeko Euskal-Erian «*euzk*» dasatela, aipatu zuten. Arloa luzaro ikerketa azterтuz gero, autarkitara eman zuten. «Eusk» otsaren alde zortzi autarkik, ta «euzk» aintzat artzeko bik yo zuten. Beraz «eusk» idaztea bein-beintzat erabaki zan.

4. Izen oren len atala zuzendu ta, bigarena azterтu zuten: ¿euskara ala euskera? Lan garatza, guzien aburuak bateratzea. Iparaldeko iru euskaltzaiñak ta Napartar biak, «*a*»-ren alde; «*e*»-ren alde Bizkai eta Gipuzkoar bostak.

Lenengo autarkian ori. Bigarenean «*a*»-tiarbat «*e*»-tiartu zan. Irugarenak beste bat «*e*»-ren aldez bildu zuan. Beraz, «*e*»-ren alde iru bakarik aurka ziralarik, *euskera* jari bear zala erabaki zan.

5. «Euskera» zanez geroz ¿nola esan bear genuan: «euskeldun ala «euskaldun»? Ortan, erazki, bigarena dala gaur egunean erabiliena, erakutsi izan zan. Autarkitara yo-ta, zazpi izan ziran «*a*»-ren aldez, ta orela «euskaldun» esan eta ezari bear zala itzartu zan.

6. Gero «academia», «académico» ta abar euskeratzeko era egokiena zeiñ izango ote zan ikertu zuten.

AZKUE'ren esanaz, «acadèmico»-rentzat «euskal-zaiñ» erabiltea, guziek onetsi zuten. «Academia»-tzaz guda gogoŕagoa izau zan, baña, noizbait, «-di» atzizkira oro bildu ziran, ta izen auxe aitatu zuten: «Euskalzain-di-a».

7. Azkenik, «euskalzain» ala «euskaltzain» izango ote zanetz eztabaidatu zan. «Tzain»-en alde, irakuŕkizun luze ta mamintsu bat irakuŕi zuan EGUZKITZA'k; ta «zain»-en aldez apaindutako beste irakuŕkizun ikusgaŕi batez erantzun zion AZKUE'k. Bi ikeŕpen oriek gutun onen bigaŕen Atalean ediro ditzaketzu. (1).

Autaŕkitaratu-ta, «zain»-en aldeko bost agertu ziran, eta lau ostera «tzain»-en alde, ta txartel zuri bat gaiñera.

Bigaŕen autaŕkitaldean «zain»-ek 6, ta «tzain»-ek 4; irugaŕen ta azkenean «zain»-ek 4, ta «tzain»-ek 6 bildu zituzten

8. Ori epaitu-ta, abots batez, ementxe dakaŕzkigun euskal itzak aitatu ziran:

Lengua vasca a) nombre: *euskera.*
» » b) prefijo: *euskal.*
Vasco: *euskaldun.*
Academia de la Lengua Vasca: *Euskaltzaindi.*
Académico » *euskaltzaiñ.*
Cargo de » *euskaltzaingo.*

II URTARILA 8'ko BATZAŔA (X'na)

1. Euskaltzaindia'ren bi Batzordeetako burutzat: Campion eta Broussain, autatu zituzten Yauŕsaiĺe'erako; Ikeŕsaiĺe'erako, Urquijo.

2. Gregorio de Maidagan apaiza, idazlari ta idatzaiñpeko autetsi zan.

---

(1) Eguzkitza'rena: «*Euskalzain ala euskaltzain?*», ta Azkue'rena: «*Gure* Academia *oni dagokion euskal-izena*» Ikus. «*Euskaltzaindia'ren agiriak*» izendun gutun aunen II'g. atalean.

3. Bizkai ta Gipuzkoa'ko Aldundieri, Bilbo'ko Udalari eta *Eusko-Ikaskuntza*'ri berengandik aŕtutako laguntzagatik, biotz-etikako eskeŕak ematea onetsi zan.

4. Euskaltzaindia'ren ikuŕitza «Ekiñ eta yaŕai», eta beraren ikuŕdia Areitz Gurutzeduna izango zala erabaki zuten.

5. Elizti-ikaskuntzari yaŕaitzeko atzeŕira yoan nai litezken ikasle gazteak lagundu eta sarista zitzaten, Aldundi'eri eskatzea agindu zan.

6. Idazkeratzaz yaŕdun zan geroxe. Eztabaida baŕik, izki-ikuŕ aunitz egokietsi ziran. Bakaŕ bat astiroago begiratu izan zan, «s» bustiari (eliztian esan oi dan bideż) dagokiona. Autaŕkitara yo-ta (autaŕki batzuk auŕka zeudelarik), izki aren ikuŕtzat «x» autetsi zan

Beraz, Euskaltzaindia'k beretzakotu duan euskal abeze auxe da:

a, e, i, o, u, ü

a, e, i, o, u, ü (Suduŕ-aboskientzat, euskalkiren baten beaŕ balira, izki orien gaiñean maŕa txikibat jaŕi.)

b, d, d̄, f, g, h, j, k, l, l̄, m, n, ñ, p, r, ŕ, s, x, t, t̄, ts, tx, tz, y, ż.

7. Euskaltzaindia'k gure izkerazko idazle guztiei eskatzen die aŕen, ahal dalarik beintzat, idazkera auxe, ta besterik ez, erabili dagiela.

Oaŕak:

1. Ona egun artan egin izan ziran autaŕkien gora berak:

A. «*Eusk*» ala «*euzk*»-en aldez:
«Eusk»-en alde: 8 autaŕki.
«Euzk»-en » 2 »

B. Eusk-«*ara*» ala eusk-«*era*»-ren alde:
Len autaŕkaldian: «ara»-ren alde, 5; —«era»-ren alde, 5.
2'gaŕen » » 4;— » 6.
3'gaŕen » » 3;— » 7.

C. Eusk-«*al*»dun ala eusk-«*el*»dun'en alde:
Eusk-«al»dun'en alde: 7 autaŕki.
Eusk-«el»dun'en » 3 »

D. Euskal-«*zain*» ala euskal-«*tzain*»'en alde:

	«Zain»'en alde	«tzain»'en alde.	
1'engo autaŕk.	» 5	» 4	(ta zuri bat)
2'gaŕen »	» 6	» 4	
3'gaŕen »	» 4	» 6	

2. Egun aŕtako bigaŕen batzaŕaldiko 7 gaŕen erabakiaren arauaz, Euskal Eŕiko idazle geieneri oaŕ au gure idatzaiñak bialdu zien:

«Donostian, iĺa aunen 7'an Euskaltzaindia'k izan eban Batzaŕean, abots batez, daŕain erabagi auxe aŕtu eban:

«Gure Eŕian agertzen diran albiztari edo izpaŕingi oroei eskatu, euskerari dagozkion gai guztietan, naiz idazkera, iztegi ta enparauetan, Euskaltzaindi aunen erabagiak onetsi ta eurentzakotu dagiezala».

Erabagi ori betetzeaŕen noakitzu orain, berauxe zeuri adi-arazoaz, eskakizuna aintzakotzat aŕtuko dozularen itzadopenaz.

Goiko Jaunak luzaŕoan yagon bezagi».

Bilbo 1920-Urtaŕiĺaren 15'an.

Euskaltzaindia'ren Zadoŕlaria,
Eleizalde'tar K.

Beaŕ bezela,
Euskaltzainburua

AMAIKA TA AMABIGARREN BATZARALDEAK

(Bilbo'n, Bizkai'ko Aldundia'ren jauregian, otsailaren 16 ta 17'tan)

ALKIETAN: Azkue, Broussain, Campion, Eguzkitza, Landerreche, Lhande, Olabide, Manterola ta Belaustegigoitia urgazleak.

I.—OTSAILAREN 16'eko BATZARRA (XI'na)

Batzar ortan artuak izan ziran erabakiak auek ziran:

1. Domingo Agirre gure lagun zanaren oleŕki edo neurtitzak argitaratzea Euskaltzaindia'k bere gain ta bere kutxatik artu-ta, Carmelo de Echegaray euskaltzain urgazleari eskatu zion gutun ori antolatzea.

2. Ainbat lasterren argitaratu zedila Euskaltzaindia'ren albistari edo alderoko agerkari bat opatu izan zan.

3. Iztegia atontzeko Batzorde bat jarri zan, ta beste bat Lureresti'rako (Toponimia).

4. Lenengoaren kideak, Azkue, Broussain eta Olabide autatuak izan ziran; ta bigarenarenak, Olabide ta urgazle diran Oleaga ta Odon Apraiz.

II.—OTSAILAREN 17'ko BATZARRA (XII'na)

1. *Junta de Cultura Vasca* deritzaion Bizkai'ko Baltzuaren eskutik Euskaltzaindiak artu zuan, ark eskaiñtzen dituan euskalidaztietarako sariketa batzuk, nori eman bear zaizkion ikeŕ ta gogortzeko lana. Ortarako, Intzagaray, Lhande ta urgazle dan Belaustegigoitia'rekiñ Batzorde bat koropilatu zuan, ta jaun oriek erabakitakoa Euskaltzaindi osoak ikusi ta onartu bear zuala, esan zan.

2. Getxo, Villafranca del Oria, Ernani ta Bergarako Udalak, ta «Jesusen Biotzaren Deya», «Zeruko Argia» ta «Irugarren Prantzizkotarra»-k Euskaltzaindia'ren azken aldiko deiari egin zioten ongietorria agirian jarri ta atsegiñez artu zan.

Oarrak:

1. C. Echegaray'ri Agirre'ren neurtitz argitaratzekoak bialdu ziozkaten:

2. Intzagaray, Lhande ta Belaustegigoitia'k, izparringien bidez, euskal idaztietarako eskeiñtzen ziran sariketak zein eta noizkoak ziran jakinerazi zuten. Euskaltzaindia'ri dagozkion sariketa orien agiria *Euskalerriaren Alde* izeneko agerkarian ikus dezakezu (1920, mayatzeko zenbakian, 85 garr. orian); ta sariztatuak izan ziranak zeintsu ziran jakiñ nai badezu, gure urrengo zenbakiak esango dizu.

3. Gure lagun maite Domingo Agirre zanaren arimaren onerako, euskaltzaiñ guziak, bere Buru Azkue apaizak opaturiko meza bat, otsailaren 17 goizean, Bilbo'ko eliza batean entzun zuten.

AMAIRU TA AMALAUGARREN BATZARRALDEAK

(Bilbo'n Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean epailaren 24 ta 25'tan).

ALKIETAN: Azkue, Broussain, Eguzkitza, Landerreche, Olabide, Urquijo, ta urgazle diran Belaustegigoitia ta Oleaga.

Batzarr orietako agiria Eguzkitza, idazlari ordekoak, ipiñi zuan:

I.--EPAILA'REN 24'ko BATZARRA (XIII'na)

Sei euskaltzain baizik ez giñan bildu ta, beingozko erabakirik ezin artu genezaken, baña eguneko kiriari jarraitu genion.

Lenbizi: BROUSSAIN jaunak, esan zigun «académico correspondiente» adierazteko autetsi genuan itz au: «euskaltzaintzako», bere iritziz luzegia zala ta oŕen ordez beste labuŕago bat aŕtu genezaken ezkero, ori egin beaŕ genuala. URQUIJO jaunak, oŕi erantzuten, esan zuan, zeatzagoen bat idoro aŕte beintzat *lankide* erabiĺi genezakela ta oŕtakotzat gelditu giñan.

Bigaŕen: BROUSSAIN jaunak *j*'ren abots eta idazkeratzaz itzegin zigun, berak gai oŕetzaz idatzitako lana azaltzen zigularik. Lan oŕetan auxe zion: «I, dan bezela, edukiren nuke Bizkaitaŕen eta Zuberotaŕen *j* frantsesa agertzeko ta aldagailu arin batekin (J̄. J̌.) Bizkaitaŕ zonbaiten, Napaŕtaŕen, Benapaŕtaŕen eta Lapuŕtaŕen d̄ adierazteko. Gipuzkoaŕen *jota* agertzeko *jh* edo *hj* erabil al litake».

Euskaltzain-buruak jardetsi zion euskeratzaz egingo diran lanetan bai, abotsen litxak adierazteko, izki oriek eta geyago ere beaŕ izango dirala noski; baña eŕiarentzako idazkietan oŕenbeste ikuŕ era biltzeak, naste ta kaltea lekaŕkela, bere aburuz.

Gero: Euskaltzain-buruak, adierazi zigun Agiŕe jaunak (G. B.) Euskaltzaindia'n utzi zuan utsunea betetzeko, Altube'taŕ Seber, euskalari bikaña, auŕkezten zuala. Auŕkezpen ori orok onetsi genuan.

Azkenez: BELAUSTEGIGOITIA jaunak, euskeraren batasunera jotzeko asmoz, idatzi zituan ogei arau irakuŕi zizkigun eta gabeko zortzietan batzaldi au, oi dan bezela, azken otoitzarekin bukatu zan.

II.—EPAIĹA'REN 25'ko. BATZAŔA (XIV'na)

Atzoko batzaldi-agerian aipaturiko sei euskaltzain eta bi lankideak bildu ziran egun onetan ere Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren beiñbeiñeko etxean.

Uŕen dijoazen gai oyek onetsi ziran:

1. Ithuŕy'ren Euskal-Irakaspidearen 12 iyeki Euskaltzaindiak erosi ta ordaindu bitza.

2. Bonaparte'ren idazki argitarakoak Aldundiai eskatu bezazkie.

3. Euskaltzaindia'ren lankide batzuek, ortarako autuak izan zirala oraindik ez dakiten ezkero, erantzun ez duten guziai beŕiz jakin erazi beaŕ zaye.

4. Euskaltzain-buruak, Ageŕe jaunari idatzi bezayo batzaŕetara eldu al izango otedan ala bere euskaltzain kisa utzi nayago ote-duan jakiteko.

5. Araudia iraŕi bedi; baña iraŕkayak, argitaratu baño len, Azkue ta Olabide jaunak beŕikusi ta zuzendu bitzate.

6. Gero, Euskaltzain-buruak idazki batzuek irakuŕi zituan. Altube jaunak, bere idazkian, euskaltzain izateko bere bayetza agertzen zigun. OLABIDE Abak esan zuan Eleizalde jaunaren autaŕkia Altube'ren alde berak zeukala ta onela, zazpi autaŕkiz jaun au autetsi zan euskaltzain izateko.

7. Eusko-Ikaskuntza ta Donosti'ko Udalak zioten beren idazkietan euskal-gayetan Euskaltzaindiaren erabiki oro jaŕaituko dituztela: Bermeo'ko Udalak ere, gai gutxi batzuek lekot, bayetz erantzuten zuan eta, azkenez, *Jaungoiko-Zale*'ren Artezkariak zion Bazkunak gaurgero erabaki oriek onesten dituala; baña lenbiziko Batzaŕ Nagosian idazle bakoitzari nayen zuan idazkera erabiltzeko eskubidea eman zitzayola ta, uŕengo Batzaŕ Nagosia egin aŕte beintzat, *Jaungoiko-Zale*'ren idazleak ezin beaŕtu ditzakela. Eta besterik gabe batzaldi au ere bukatu zan azken otoitzarekin.

Oaŕak:

1. Broussain'ek «J'ren ots eta ortografia'z» idatzitako lan osoa gutun onen II'n Atalean jaŕia dago.

2. Azken batzaŕetan aldatua zeukaten araura, Euskaltzaindia'ren baŕneko araudia, Azkue ta Olabide'k, beŕikuskatu ta beŕiraŕazi zuten. Ori da eskuetan darabilgun 2'gaŕen ateraldia.

AMABOST TA AMASEIGAŔEN BATZAŔALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregi'an, ioŕaiĺa 25 ta 26'an)

ALKIETAN: Azkue, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagarai, Landerreche, Lhande ta Olabide, ta gañera Altube, Belaustegigoitia ta Cincunegui euskaltzaiñ uŕgazleak.

Batzaŕ auetako agiriak Eleizalde gure idazkizaiñak jaŕi zituan.

I.—IOŔAIĹAREN 25'eko BATZAŔA (XV'na)

Lenbiziz: EGUZKITZA yauñak Batzaldi azkeneko agiria irakuŕi eban eta onetsi izan zan. Geroxe, Buruzagiak Broussain yaunaren idazki bat irakuŕi eban, Batzaldi onetara ezin eldu zala, bere gañerako arazoakatik, adierazotan, uts ori gaiztetxi ez edintzat. Baita bére, aitaturiko euskaltzaiñak bidalitako idazkun bat, *j* dala ala ez dalatzaz, irakuŕi izan zan. Erabagizun ori auŕerantzeko iztea erabagi zan.

2. Gazteiz'ko Gotzain yaunari, berak obetziko leuken Kristaŕ irakastia eskatzea erabagi zan, bein beiñekoan beintzat euskeraldu dedintzat, euskal-ikastoletarako.

3. *Il* eta *in*'en erabagizuna, bere, auŕerantzeko iztea obetsi izan zan.

4. Gero, autaŕkitara yo izan zan, «euskalgi» ala «euskalki» (dialecto) izango zanentz, eta iru autaŕki aldez, bat auŕka ta zuri bi ziralarik, «euskalki» obetsi izan zan.

5. Euskeraren batasun-bideak azteŕtzea ta obetziko litzakena aŕtzea, uŕengo Batzaldirako itzi izan zan.

6. Ageŕe euskaltzaiñaren idazki bat irakuŕi izan zan, euskaltzaingoari uko egiten, arazoz yosia ta zeregiñez betea ei-dagola-

ta, ezin leukelako gura bezela euskaltzaingo ori yaraitu ta bete. Uko ori aintzat artzea erabagi zan.

7. Bilbo'ko Guda-Yaurlariak, Bizkai-Aldundi-bidez, egin daun itaunari, «gaur *Euzkadi,* legez beintzat, Bilbo'ko izparingi baten izena bakarik dala» erantzutea erabagi zan. (1).

8. Bizkai-Aldundiak Euskaltzaindia'ri 40.000 laurlekoren urtesorozkuna eman dautzola aitatu zan, eta beraz, Aldundi ori beat yakozan ezkerak agertzea erabagi zan.

9. Bizkai-Aldunai berak Euskaltzaindia'ri eskatu dautzo, uri ta auzo sar-bideetan ezari dauzan izen-idazkunak begiratu ta aztertu dagizala, uts ala okerren bat ba'lego, bete ala zuzentzeko. Euskaltzaindiak, arazo au gogo onez arturik, berari dagokan bezela, Batzorde bat izentatzea erabagi eban, Azkue, Eguzkitza ta Eleizalde'z eraldua, gai oretzaz euren argitasuna emon egientzat. Au zala-ta, Gipuzko, Naparo ta Araba'ko Aldundiei orobat dagiela eskatzea erabagi zan, arean, uri ta auzo baztertetan edo sar-bideetan, euskal-izenak ezari dagiezala; berebat, Udal euskalduneei, basetxe-izenak euskeraz, ta Euskaltzaindiak bereturiko idazkeraz, ezartzea agindu dagiezala.

---

(1) Ona arlo oren iturburua. Epaila 25'ean gure Buruzagiak ikergai au Bizkai'ko Aldundia'ren eskutik artu zuan:

«Gobierno Militar de la Provincia de Vizcaya. El Juez militar de esta plaza, cumplimentando órdenes del Excmo. señor Capitán General de la región, me interesa gestione se practique una prueba pericial sobre la significación y traducción del concepto «Gora Euzkadi azkatuta», por lo que ruego á V. S. me diga si entre los empleados ó entidades dependientes de esa Excma. Diputación podría efectuarse el referido peritaje. Dios guarde á V. S. muchos años. – Bilbao 20 de Marzo de 1920. L. Arraiz (ó algo así) — Señor Presidente de la Excma. Diputación de Vizcaya. *Decreto.* – Pase á informe de la Academia de Lengua Vasca. – Bilbao 24 de Marzo de 1920.— El Presidente, *Echevarría*».

Esan degun bezela bere kideekiñ itzartu ta, Azkue'k erantzun zuan:

«En cumplimiento del encargo confiado por V. S. á esta Corporación, tengo el gusto de comunicarle que la frase *Gora Euzkadi azkatuta* significa «arriba Euzkadi suelto». La voz *Euzkadi*, oficialmente, no es otra cosa que el nombre de un conocido periódico bilbaíno.

Muy grato le es al infrascrito repetirse á las órdenes de V. S. Dios guarde á V. S. muchos años. —Bilbao 26 de Marzo de 1920.—El Director de la Academia de Lengua Vasca.—*Señor Presidente de la Excma. Diputación de Bizkaya*».

10. Erderazko «Académico correspondiente» adierazteko «euskaltzaiñ-uŕgazle» autetsi zan.

11. Amaŕ ala amaika euskaltzain diranean, erabagirik aŕtzeko, *sei*'ren biltza azki izango zala erabagi zan.

12. Aldundiei euren eskuetan daukozan euskal-eskutitzak eskatzea Gariĺa'raño iztea erabagi zan, Iruña'n orduan izango dan Batzaŕ Nagosiaz era ona izango dala-ta.

13. Katalan-izkeltzaingoari ikaste-ikeŕkunde bat egitea erabagi zan, eta Griera yauna, Eusko-Ikaskuntzaren deyez, bertara datoŕen ezkero, aitaturiko yaun oŕen bidez ango ateak zabal-eraztea erabagi zan. Orobat, Urkixo euskaltzaiñ yaunari, Madrid'en dagola-ta, ango Izkeltzaingoa ikeŕtu ta azteŕtu egiala eskatzea erabagi zan.

Ta besterik ez egoala-ta, Batzaldia amai-erazo zan arauzko eraz.

II.—IOŔAIĹAREN 26'eko BATZAŔA (XVI'na)

(Atzo alkitan zegozen berak, ta gañera: Campion.)

Lenbiziz: j-auzia Broussain yauna etoŕi aŕte iztea erabagi zan, auzi oŕetzaz yarduteko gogo bizia aipatu zualako aitaturiko euskaltzain'ak.

Gero: Irakuŕi eban CAMPION yaunak, berak eta Broussain yaunak eralduriko idazkun luze ta edeŕa, Euskeraren batasunera eltzeko dagokezan bideak zeero ta sakonki agerturik. Irakuŕkizun ori Euskaltzaindiak atzegin betez entzun eban, irakuŕlearen itzak saŕi ta saŕi onetziaz. Gero, iñork eskatuta, abots batez, idazkun ori argitaldu ta ugaririk ugarien zabaltzea erabagi zan. Baita ere, idazkun oŕen gayaz, euskaldun oroen aburuak, naiz aoz naiz idazkiz, aŕtzea erabagi eban Euskaltzaindiak.

Eta geyagorik ez egoala-ta, Batzaldia amaierazo zan, arauzko eraz.

Oarak:

1. Broussain'en bigarren idazki goraxeago aipatu zaitzuna gutunaren II'en Atalean gordea daukazu.

2. Agirre'k, euskaltzaingoa ukatzeaz, utzi zuan Euskaltzaindia'ren diruzaiñgoa, abots batez, Altube euskaltzaiñ gaiaren lepora emana izan zan.

3. Euskaltzaindia'k, erabaki zuan bezela, Campion eta Broussain'en euskera bateratzeko gaiaz idatzitako gutuntxoa argitaratu zuan. (1).

AMAZAZPI TA AMAZORTZI GARREN BATZARALDEAK

(Donostian, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, orilaren 24 ta 25'ean)

ALKIETAN: Azkue, Eleizalde, Eguskitza, Intzagarai, Landerreche, Olabide ta Urquijo.

I.—ORILAREN 24'eko BATZARRA (XVII'na)

1. Gure Buruak, Broussain lankide maitearen eriotza ustegabekoa aipatu zigun, ta itz saminez lagun maite oren gogo-biotzak goretsi zizkigun.

2. Agerkarien bidez, Agirre ta Broussain'ek, lenak bere uko egiteaz, besteak bere eriotzaz Euskaltzaindia'n utzi zuten utsunea ezagutaraztea, erabaki zan.

3. Campion eta Broussain'en «euskera bateratzeaz»-ko gutuntxoa eskuetaratu zitzaigun, ta Eusko Ikaskuntzaren bidez urirrik ta nasaiki zabalaraztea erabaki zan.

---

(1) Ona aren izena: *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain á la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera.* Bilbao. Imprenta del Ave Maria. 1920. In-32 eineko 20 orri.

4. Euskaltzain batzuk, egiĺeak bere idazki ori, noizbait Bilbon, leku zabal ta idiki batean, irakurtzea egokitzat erakutsi zuten, edozein entzulek bere aburua agertzea ziĺegi zualarik.

5. Esan izan zan Gipuzkoa'ko Aldundia'ri, ark len bere diruz biŕargitaratu zuan Aita Mendiburu'ren «Jesusen Biotzaren Devocioa» deritzayon gutunaren zenbaki saldugabekoak, Euskaltzaindia'rentzat eskatu beaŕ genizkiola, ta alaxe egin zan.

6. Gero erabakitxo batzuk artu ziran: 1'na, Intzagarai'ri Euskal oleŕki edo neuŕtitz oberenak mordo batean bil zitzala agintzea; 2'na, idazlari ordekoa gure idazkizaiñari laguntza emateko batzaŕetara agertzea; 3'na, beŕiz euskaltzaiñ deduzko uŕuti daudenai bere euskaltzaingoko beŕia jakiñaraztea; 4'na, urte amaya baño lenago, Euskaltzaindia'ren lanak gutun batean argitaratzea.

7. Azkeṇik, Araba ta Bizkai'ko Aldundia'k Euskaltzaindia'ren erabakiak onesten zituztela zekaŕten eskutitzak irakuŕi ziran.

II.—ORĪLAREN 25'eko BATZARA (XVIII'gna)

1. Aita Zabala'ren ipuiak argitaratzea onetsi zan.

2. Carmelo Echegarai'ri, Domingo Agiŕe-ren oleŕkietarako apaindu bear zuan itzauŕea gertutzen leia zedin eskatzea erabaki zan.

3. Aita Anton, Eŕoman dagon Jesus'en Lagundi'ko euskaltzaleari idaztea itzaŕtu zan, zeintsu diran Italian argitaratuko elizti-ikeŕpenezko gutun onenak (obras de Ĭingüistica) jakiteko.

4. Diruzaiñari eman geneikion, Bizkai'ko Aldundia'ri, aŕk itzeman zigun diruaren erdia eskatzeko eskua.

5. Euskal atzizti (sufijos vascos) gaiaz derasaten liburuak Euskaltzaindia'k eros litzan agindu zan.

6. Euskal-izkidetegi bat (Diccionario de rimas vascas) antolatzeaz aburu batzuk erabili ziran.

7. Campion'eri eskuaŕtean dauzkan lanak «Euskera'ren iztegi kondairazkoa» ta «Antziñako toki-elestia» (Dicccionario histórico de la Lengua Vasca y Toponimia antigua) zein eineratuak diran galdetzea erabaki zan.

8. Ayestaran'en eskutidaztiak ikeŕtzeko asmoz, Euskaltzaindia'k bere eskuetan jararazi zituan.

9. «Dictionnaire des idées suggérées par les mots» deritzaion liburu prantzesa eskuetan aŕturik erakutsi izan zan nola oŕezaz lagundu giñateken gure euskara xee-xeeki ikeŕtzeko. (1).

Oaŕa:

1. Oŕiĺaren 24'eko amaŕetan, Euskaltzaiñak Donostiako Andre Maria'ren elizan bildurik, Broussain bere lagun zanaren oroitzapenetan meza bat opa ta entzun zuten.

EMERETZI TA OGEIGAŔEN BATZAŔALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoako Aldundi-Jauregian garagaŕiĺaren 22 ta 23'an).

ALKIETAN: Azkue, Campion, Eguzkitza, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide, Urquijo, Altube euskaltzaiñ autatu beŕia, ta Cincunegui uŕgazlea.

Artu dien erabagiak onetxek dira, Eleizalde'ren eskuz bilduak:

1. Asieran AZKUE Euskaltzainburu jaunak bere lan bat, Iztegia atontzeko bideaz (composición lexicografica) irakuŕi eban, eta argitaratzea erabagi zan, arlo onen ardurea Urkijo jaunak arturik.

---

(1) Bigaŕen Atalak derakuskizu era oŕezaz egin ditezkeen ikeŕpeen ageŕkizun bat. Ikus. *Vocablos agrupados según su significación.* I. *Inteligencia,* por R. M, de Azkue; *Carácter,* por Pierre Lhande, S. J.

2. Urkijo jaunari eskubidea emon, Euskaltzaindirako bere eritxiz egokiak diran idaztiak erosteko.

3. Euskeraren batasun-bideaz izan beaŕ dan Batzaŕ-agirirako baldinkuntzak izentatu.

4. Euskaltzaindiaren Soŕtarauak elazkitu.

5. Euskaltzainentzat ezautailuak eragin eta A. Lhande'k eta Intzagaray jaunak Euskaltzaindiko sendatzez ituntzeko ardurea artu dayela.

6. Altube jaunak, izpaŕi ta erderatik datozen itzak erabilteko bideak uŕengo batzaŕean auŕkeztu daizala.

7. Urkijo eta Intzagaray jaunai auŕeragoko batzaŕetan izentau jaken lanerako («Euskal-Ereslarien ereserti bikainenak» aŕgitaratzea zan lan au), Lekuona jauna iratxeki dakiela.

8. Pierre Broussain jaunak (G. B.) Euskaltzaindian itxi eban utsunea beteteko, Campion, Urkijo eta Azkue jaunen auŕkeztea, Lacombe jaunaren aldekoa, irakuŕi zan.

9. Jose Ageŕe jaunaren ordezkotzat A. Damaso Intza Kaputxinoaren alde auŕkeztea egin eben Campion, Urkijo eta Azkue euskaltzainak.

10. Urtean izentauta dagozan ogei aldiroko batzaldietatik gitxienez amaŕ batzaŕetara eztatozen Euskaltzainaren lekua utsik dagoala iragaŕteko eskubidea Euskaltzaindiari emon.

11. Ikasleai euskal-irakaspena emoten dautsen Ikasguetan sariketak atondu.

12. Euskaltzaindiaren Eŕolda-izena «Euskera» izan dadila eta lenengo zenbakia argitaratzeko arloa A. Lhande'k artu dayala.

13. Gipuzkoa-Aldundiko' Buruzagiari, Euskaltzaindiaren izenean, aguŕ egin eta bertoko Aldundi-Jauregian egiten diran batzaŕetara, laguntzaile bat bialdu dayala, ¡aŕen! beragandik eskatu.

14. Uŕengo batzaŕak garagaŕilaren 23 eta 24-an, Eusko-Ikaskuntzaren bigaŕengo Batzaŕaz batera, Iruñan izan daitezala.

Oarak:

1. Azkue'k batzar onetan irakuri zuan ikerketa, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* izendun agerkarian, Urkijo'ren arduraz argitaratu zan. (Ikus. R. I. E. V. 1920'ko 3'garen zenbakia: *De la composición vasca).*

2. Euskaltzaindia'ren sortarauak elazkitu ziran, euskeraz ta erderaz (8 × 8) oritako gutuntxo batean ta izen onetzaz: *Euskaltzaindiaren Sortarauak. Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca.* Bilbao. Euzko Argitaldaria. Editorial Vasca. 1920.

3. Euskaltzaindia'ren ikurdi edo sendatz-gai batzuk marazleeri agindu-ta, Azkue'k Bilbon eginikako pilo bat ta Lhande'k, Irundar euskal-etxagile Casadevante'ren eskuz apaindutako beste pilo bat, erakutsi zituzten. Baña Euskaltzaindia'k etzuan oraindik bat ere aintzat artu.

4. Altube, D. Agirre'ren ordez euskaltzain gogortu, ta Lacombe Broussain'en ordez, ta Aita Intza Agerre'ren ordez aurkeztuak izan ziran.

OGEI-TA-BAT TA OGEI-TA-BI GARREN BATZARALDEAK

(Iruña'n, Bigarren Mailla'ko Ikastolan, garillaren 23 ta 24'an)

ALKIETAN: Azkue, Campion, Eguzkitza, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide, Urquijo, Altube, euskaltz. autatua, Intza, euskaltz. aurkezt, Arburua, Etxalar, Lareta ta Lecuona, urgazleak.

Ona, Euskaltzaindia'ren idazlari bigarenaren eskuz eginikako bi batzar orien agiria:

1. EGUZKITZA Jaunak, gaya (objeto) adierazoteko atzizkiak zeintzuk direan zearo erakutsi eban, euretatik bat autaturik, erderazko «Boletín»-i dagokion itz bat artzeko. Izkaldi luzea izan zan, baña erabagirik etzan artu. Lan ori birdatzi ta euskaltzain bakoitzari, ikasteko, bialtzea erabagi zan eta bitartean «Boletín de la

Academia»-ren ordez «Euskaltzaindiaren lanak» erabiltea onetsi eben.

2. ALTUBE jaunak, bere lan bat, itz baŕiak erabilteko bideaz irakuŕi eban eta abegi onez entzun ondorean biŕdatzi ta euskaltzainai bialtzea erabagi zan.

3. A. LHANDE'k «Euskera» agerkariaren lenengo zenbakia zelan eratu daben eta gai oŕezaz egin dauzan lanak irakuŕi ebazan, eta oron aburuz aintzat artuak izan zirean.

4. Len Etxegarai jaunari emon jakon arazoa, Agiŕe zanaren oleŕkiak batu ta aŕgitaratzea. A. Intzak aŕ dayala.

5. A. Intzak berak edo bere lagunen batek aŕtu dayala, Iruñako Eŕki-gutuntegian dagozan Bonaparte-ren eskuidazkien baŕi Euskaltzaindiari emoteko ardurea.

6. *Euskal-Esnalea*'ren oŕiĺa'ko zenbakian, 86 gaŕen oŕian, Euskaltzaindia'ren erabakia bezala ekaŕia dan izpiyakerazko legea *(etxea* ta ez *etxia; ez det,* ta ez *eztet)* egiĺearen naigabezko utsa dala jakiñaraztea: Euskaltzaindia'k gai ori oraindik artu eztu-ta.

7. AZKUE jaunak A. Zabala-ren eskuidazkien baŕi emon eban eta galdu direanak loŕtzeko alegiñak egiteko berau gelditu zan.

8. Euskaleŕiko basauri eta basetxeetan idazkunak imintea ta aŕlo ori beteteko Intzagarai, Lhande eta Altube batzordetzat izentau zirean.

9. Bizkai-Aldundiagandik, «Museo de Bellas Artes» deritxon jauregian Euskaltzaindi onen etxea izan dain lortzeko arazoa, Azkue eta Eleizalde jaunen eskuetan itxi.

10. Lacombe eta A. Intza, oron aburuz, euskaltzain izentau, lenengoa Broussain zanak itxi eban utsunea beteteko eta bigaŕena Ageŕe'ren ordez. A. Intzaren euskaltzain sarpidea Lotaziĺean izan daiĺa eta Urkijo jaunak Lacombe-gandik jakin dayala Azaro-rako gertatuko daben saŕpide itzaldia. Baita be izentau zan euskaltzainuŕgazle, Lacombe-ren ordez, Elizalde, Ustariz-ko Bikarioa eta

uŕengorako itxi ziran Buena Ventura Oyeregi (Arbelaitz), Antxubeŕo eta Gerhard Baehr.

11. A. OLABIDE'k, euskaltzaiñen agerietan imini beaŕ dan idazkia, berak asmautakoa, irakuŕi eban eta Azkue jaunari, bere antzera eraltzeko ardurea emon eutsen lagunak.

12. «Zadoŕlari» itzaz etzan erabagirik ļaŕtu eta bitaŕtean bakoitzak gura dabena erabili dayala.

13. Euskaltzaiñen batek, auŕerantzean, bere lanen bat auŕkeztu gura dauanean, Euskaltzaindira garaiz bialdu dayala erabagi zan; emendik, biŕdatzi-ondorean, euskaltzain bakoitzari bialduta, eurok batzaŕ-auŕetik ikasi al izan dayen.

14. Arantzadi (Telesforo-ri) itz-zaŕak biĹatzeko ereduak eskatu, gero euroen antzera egin eta erietara bialdu al izan daitezan.

15. Euskaleŕiko izpaŕingiai eskatu, Euskaltzaindiak egun birik baten bialduko dautsezan, politikaz atako irakuŕkizunak aŕgitaratuko dabezan. Gero, nortzuk idatziko daben ardurea Gipuzkoa-n Lekuona-k, Bizkai-an Eguzkitz-ak, Napaŕoa-n Intz-ak eta Araba-n Olabide-k artu dayela.

16. A. Intza euskaltzaiñ autatuak, Urabayen jauna lagun dabela, ikusi bei Napaŕoan euskera zabaldu ta gogoŕtzeko egokienik egin daikeana zer dan. Napaŕoako Aldundiak Euskaltzaindia'ri emongo dautsan dirua onentantze eraltzea erabagi eben gogo baŕdiñez euskaltzaiñ guztiak.

17. Bilbon, Negiĺa'ren erdi-inguruan Euskeraren batasuna ikasteko izango dan batzaŕ-agirian: *a)* Olabide, Eleizalde eta Azkue izango dira maibúruko; *b)* Batzaŕ oŕetan itz egin dayen guztiak idazkiz auŕkeztu dayezala, itz gitxitan, izpide bikaiñenak; *c)* Azken-eretxia Euskaltzaindia'ren aldiroko batzaŕ betean emongo da.

18 Gazteizko Apezpikuak Euskaltzaindi'ri bi euskalkitan oraintsu idatziriko kristiñau-ikasbidea aztеŕtzeko eskaria egin dautso. Batzaŕkide guztiak gogo beroz aintzat aŕtu eben asmo ori ta len-bai-len beteteko Eleizalde, Olabide ta Azkue autatu ebezan.

19. A. Intzaren eskabidez Iruñako gotzainagandik loŕtu beite len aitaturiko kristiñau-ikasbidea, Giputzerazkoa, Napaŕoa'ko euskaldunen aŕtean sartzea.

20. Gipuzkoako-Aldundiaren idazki bat aŕtu zan, Elkano-ren eungaŕen urterako eresi bat egiteko aŕloa Euskaltzaindi onek bere gain artu dayala eskainiaz. Euskaleŕiko seme guztien aŕtekoa izan daitean batzaldi (konkurso) ori, Gipuzkoaŕentzat izan beaŕean, Azkue jauna Aldundi buruagaz itz egiteko gelditu zan.

21. Odon Apraiz Lingüistika-legeak ikasten, atzeŕira, Euskaltzaindiaren arduraz bialdu ta asmo ori aurera eroateko Urkixo, Campion eta Azkue batzordekotzat izentau zirean.

22. Bizkai'ko Gobernadoreak Arantzazu deritxon basauritxoari egin dautsan bidegabekeria dala-ta Campión'ek Eŕegeri zerbait idaztea erabagi zan.

23. España'ko Lateŕiari eskatu, euskeraz baño eztakien eŕietako ikastoletan euskerearen bidez egin daitezala ikasteak.

OAŔA

Agerkari onen yauŕtzea geiegi berandu eztadin, beraren II'gaŕen Atala (Euskaltzaindia'ren Agiriak) datoŕen urte asieran argitaratuko dan gutun berezi baterako uzten degu. Emen aipatu ditugun Euskaltzaiñen ikeŕ-azteŕpenak, an, zabalzabalak ediroko ditutzu.

P. L.